

ttipi-ttapa




GERO ETA PILOTAKADA INDARTSUAGOAK

Abuztuaren 14an Leitzan borobilduko dute Ados klubeko pilotari profesionalek jokatu duten lehenbiziko txapelketa. Klub sortu berriaren eta txapelketaren harira mintzatu dira lera Agirre leitzarra, Naroa Elizalde zubietarra eta Irantzu Etxebeste beratarrak TTIPI-TTAPAREKIN. / 10

JAVIER BERGASA / D. NOTICIAS

Baztango eskola ttikiak kexu

Baztango eskola ttikiek antolatu dituzten tailerrak alde batera utzi ditu gobernuak eta horrek ezinegona sortu du. / 36



Jon Zabaleta Beko goizuetarra El Conquistador saioko esperientziaz / 8



Lan hitzarmen duinaren alde Zalain Transformados lantegian greba / 20



Urdazubiko Burdinaren Eguna abuztuaren 7an ospatuko dute / 38

SINADURAK

MAIALEN IANTZI DANBORIENA / 3	AITOR AROTZENA ALBIZU / 3
MAIALEN SOBRINO LOPEZ / 3	MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN / 4

Jonan Sorando Odiola
72673152-A
2003/04
372

ZOZKETA / 52

BERA LESACA

Agenda

**UZTAILA
ABUZZTUA**

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

ERAKUSKETA BERA NIRE GURASOEI OMENALDIA (IGNACIO LARRA) Uztailaren 31tik abuztuaren 29ra Lekua Kultur etxeko erakusgelan Ordutegia 10:00-13:00 / 17:00-19:00 Inaugurazioa uztailaren 31n 19:00etan Asteartetik igandera irekia (astelehenetan itxia) Igandeetan eta besta egunetan arratsaldez itxia	31 LARUNBATA DANTZA ENTSEGU IREKIA LED SILHOUETTE LESACA 19:30 Harriondoko atarian	6 ORTZIRALEA MUSIKA TENPORA 20:00 Plaza Zaharrean Nafarroako Gobernuko KULTUR egitarauaren barrenean LESACA
ABUZZTUA		
29 ORTZIRALEA DANTZA XABI SOLANO ETA ZIGOR DZ 19:30 Irubideko atarian LESACA	1 IGANDEA MUSIKA TXAMUKOS MARIATXIAK 12:30 Onin erreka gainean LESACA	7 LARUNBATA JOLASAK JOKAI egurrez egindako eta euskal mitologiaren inspiratutako jolasak 11:00-14:00 Merkatu plazan BERA
30 ORTZIRALEA IKUSKIZUNA SORMEN GINKANA 18:00 Biurranan LESACA	1 IGANDEA KONTZERTUA A DREAM OF JAZZ (CARABAND) 19:00 Alizateko plaza Argibide gehiago www.carlosarriezu.com/caraband BERA	7 LARUNBATA KONTZERTUA JOSEBA TAPIA 19:00 Alizateko plaza Argibide gehiago www.josebatapia.eus BERA
31 LARUNBATA MERKATUA MERKATU TITIKIA 10:00-14:30 Beheko Plazan LESACA	1 IGANDEA KIROLA VII. BERA GAU LASTERKETA Ordua 22:00 Luzera 7,3 km Desnibela 300 m positiboak Argibideak eta izen-ematea www.mantale.com Antolatzailea Mantale Mendi Lasterketa Taldea Laguntzailea Berako Udala BERA	8 IGANDEA ANTZERKI FAMILIARRA YIJAA 19:00 Iturbenako plazan LESACA

Panelak - Biniloak

Seinaletikarekin zerikusia duten materialak
Aluminiozkoak, PVCzkoak, biniloak, olanak eta abar

PANELAK-TOTEMAK

INFORMAZIO PANELAK
Egurrezko egiturekin edo gabe

Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta materialen aukerak

ALUMINIOA
Sandwich panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3 mm
Koloretan

PVC
Forex panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3, 5 eta 10 mm
Koloretan

METAKRILATO
Gardenak eta opakak
Lodiera: 4 eta 10 mm
Koloretan

ROLL-UP

ROLL-UP
Garraio poltsarekin
Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta kalitate aukerak

BINILOAK

AZIDOAK

ELEKTROSTATIKOAK

GARDENAK

MIKROBENTOSAK

MIKROPERFORATUAK

POLIMERIKOAK

GAUZA GEHIAGO

OLANAK

PEGATINAK

INFORMAZIO GEHIAGO:
Koskontako bidea, 7-1 · LESACA · Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tupi.eus · www.kulturkari.com

2 ttipi-ttapa | 787 zk. | 2021-07-29



NIRE TXANDA

MAIALEN IANTZI DANBORIENA

Herria da gorputza, hizkuntza bihotza

Biderketa betikoa, emaitza ere bai: 15 euskaldun eta espainol hiztun bat, denak espainolez. Betiko kantua da baina ez dugu aitzinerat egiten... Duela gutira arte erabat euskaldunak ziren eremuetan espainolez solasean entzuten dut azken aldian, betiko aitzakiak tarteko; ohitura kontua dela, errespetua...

10 urte gure artean bizi eta «egun on» errateko gai ez den horrek ez al digu ba guri errespetua faltatzen? Zuek uste duzue Ingalaterrara joaten bagara, bertakoek gainera-koenganako *errespetuz* ingeleza utziko dutela?

Guk galduko dugu gurea dena arrosazko pasilloa irekitzen badiegu Euskal Herrian euskararik gabe bizi nahi dutenei.

Holako jarrerekin, espainolez solastatzen den herri bihurtuko gara, baina hori bai, errespetudun espainol hiztunak! Izan diezaiozun errespetua geure buruari!

«ESPAINOLEZ
SOLASTATZEN DEN
HERRI BIHURTUKO
GARA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Helmuga baino lehen besoak goiti

Aunitzetan ikusi dugu: txirindularia kontent besoak altxatzen helmuga gainditu baino lehen eta bertze batek bazterretik aitzineratu eta garaipena lortu. Batzuk hista egiten diote tonto aurpegiarekin gelditu den ziklistari, baina irabazleak adinako lana egin du. Horrelako zerbait gertatu zaigu: besoak agudoegi altxatu ditugu eta helmuga non dagoen ez da ageri oraindik.

NABARMENTZEKOAK



JABIER
ZABALA
FUTBOLARIA



IXABEL
DANBORIENA
AKORDEOILARIA

Orain arte Doneztebe Futbol Taldeko jokalaria izan da Jabier Zabala doneztebarra, baina heldu den denboraldian Osasunan ariko da. Talde gorritxoak infantilen B mailan aritzeko fitxatu du.

«Baztandar aunitzi sartutako akordeoiarekiko maitasun eta grinagatik eta erakutsitako kantuengatik» Baztandarraren Biltzarrak omenaldia egin zion uztailaren 18an Miguel Iparraguireri.

ATZERA BEGIRA



2011-07-21 · TTIPI-TTAPA · 547 zk.

Gaztetasuna ama izateari eskainia

Duela hamar urte ama gazterik izan ziren sei emakumezkoren testigantzak bildu zituen TTIPI-TTAPAK. Maialen Irigoien (Lesaka), Ainhoa Etxebeste (Sunbilla), Bakene Karrikiri (Elizondo) eta Malen Perurena, Arantxa eta Nagore Eskudero amona, alaba eta biloba (Goizueta). Malenek «orain ezkondu behar banu beranduegi eginen nintzateke, edo batere ez», aitortu zuen; Nagorek «denborarekin pazientzia joan egiten dela eta seme-alabak lehenbailehen iza-tea hobe dela» zioen; Maialenen iritziz, «gauza aunitz gerorako utzi behar dituzu, baina umeez bertze gauza batzuk ematen dizkizute»; Ainhoari ez omen zitzaion gogorra egin «nire adinekoak euren martxan eta ni etxean gelditzea»; eta Bakenek «guraso gazteak gehiago jolasten gara eta haurrek eskertzen dutela» kontatu zuen.

ttipi-ttapa

erran.eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Ruben Oskariz, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemakalariak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maider Petrarena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,
Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari
Barriola, Marga Erdosain, Maitane
Maritorena, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabala, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemmanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Sempereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarte

2021eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	40€
etia Malerrekako	
Leitza	30€
Hego Euskal Herria	48€
Ipar Euskal Herria, Europa	94€
Amerika eta Australia	140€

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

mecna

BAZTANGA EUSKARA

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Malerrekako Mankomunitatea

CC BY SA



KOLABORAZIOAK

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

Konfinamendua

Artikulu hau idazten ari naizela, konfinamendu bete-betean nago (bai: Lesakako sanferminetako boleto zortedun horietako anitzen erosle sutsua ni ere). Koronabirusa zintzo xamar portatzen ari da gurean: sintomak baditugu, baina ez zaka-rrégiak, eta egunetik egunera hobera joaten ari gara. Asperdura eta nekea, aldiz, gero eta handiagoak bihurtzen ari zaizkigu. Hasiak gara –pribilegiatuak gu- terrazan kirol ariketa xelebreak egiten, karta joko berriak deskubritzen, gauetan serieak edo filmak irensten; eta, ez dut ukatuko, etxetik inork nabaritu gabe atera ahal izateko tranpak pentsatzen ere bai. Nik Iñigo Martinez behin eta hark Henri Charierreri noizbait irakurri gisan, preso ororen «betebe- herra» baita ihes egitea; eta, beraz, baita ihesaldi hori nola egin pentsatzea ere (idazten ari naizen honetan, zehatz dezadan, ez naiz oraindik eskapatu).

Ez da ideia berria, baina preso ditugun lagunengana eramane dit gogo berriz ere egunetako itxialdiak. Burura ekarri dizkit, erraterako, duela ez hainbertze horietako batek idatzitako gutunean zehazturiko hobekuntzak, kartzelaz aldatzeagatik lorturikoak. Kontatzen zidan, adibidez, aldatu zaizkiola bistak: orain arte kartzelako pareta baino ez zuela ikusten ziegako leihoaren bertze aldean; eta, orain, aldiz,

«30 URTETAN EZ DA EGON KALEAN. HORI BAI KONFINAMEN- DUA, ETA EZ GUREA»

honetaz ohartu ez! Kontatzen zidan, halaber, preso sartu zutenetik lehenbiziko aldiz ikusi ahal izan zuela ilunabarrean eguzkia sartzen -urte mordoxka bat pasatu ondotik-; ederra izan zela. Eta hunkitua ni, ez irri ez negar, zer egin ezin jakinik. Eta kexaka gu, hamar egunez etxeko leihotik ikusi behar izan dugulako ilunabarra, eta ez, adibidez, Agiñako kaskotik.

Artikulu hau irakurtzen ari zarela, dena den, karrikan egonen naiz seguru aski; eta ez tranpa egin dudalako: lehendabiziko PCRa egin nuenetik jada hamar egun pasatu direlako baizik. Hamar egunean askatasun egun bat, ez dago hain gaizki. Gogorazi dit joan den astean Etxerat euskal preso senideen elkarteak agerraldia egin zuela Bilbon, salatzeko Espainiako Auzitegi Nazionala legez dagozkien baimenak ukatzen ari zaizkiela euskal presoek. Egun batez edo batzuek kartzelatik ateratzeko baimenak dira, urtean kopuru mugatukoak, eta gero berriz kartzelara buelta egin behar dute presoek –preso arruntek izaten dituzte maiz-. Honela azaldu zuen Nekane Basaurik, Joseba Arregi Erostarbe presoaren bikotekideak, prentsaurrekoan: «Josebak ia 30 urte daramatza espetxean, eta ez du izan baimen bakar bat ere. 30 urtetan ez da egon segundo bakar batean ere kalean». Ihes egiteko betebeharra, baina ez aukera... Hori bai konfinamendua, eta ez gurea!



MAIALEN SOBRINO LOPEZ

Basa, Laba, HIGA...

Joan den hilabetean ospatu zen HIGA edo hizkuntza gutxi- tuetako hiztun gazteen topaketa eta elkartze fisikorik egin ezin zenez antolatzaileek proiektu lehiaketa paratu zuten martxan. Sari banaketa ekitaldia mundiala bezain berezia izan zen eta txapeldunen hitzartzeetatik aipu batzuk ekarri ditut honat.

Lehendabizi, irabazleak, Miren Uriarte euskalduna eta Arawi Ruiz kichwa, hasi ziren erraten beraien arteko elkarri- zketak luze eta mamitsuetatik sortu zela proiektua eta, ondotik, azken aldian ugaltzen ari zaigun uztarketa ekarri zuten oholtzara: klima aldaketa eta hizkuntza gutxituak gurutzatzen dituenak, hain zuzen ere. Hitzez hitz, erran zuten: «gure hizkuntzek naturarekin erlazioatzeko duten moduari balioa eman nahi izan diogu» eta proiektuaren bidez «basatzera ani- matu» gintuzten. Izan ere, kitxuaz eta euskaraz *basa* hitzari lotutako erranahi eta konnotazioak bildu zituzten eta gehienak negatiboak direnez *basa* hitzaz birjabetzera bultza- tu nahi gaituzte. Finean, hizkuntza basatien basoa zaintzera.

Bertzalde, bigarren saria irabazi zuten Amaia Orbe euskal- duna eta Morgane Lincy bretoia hasi ziren erranez: «normal- ki uste dugu mapetan ageri diren hizkuntzak, mugak marraz- ten dituzten horiek direla egiazki inporta dutenak, komuni- katzeko balio dutenak,

«PANDEMIA GARAICO BIGARREN UDARAKO NOTAK DIRA AIPUOK»

aldera. Dena den, joan-etorrian ikuspuntua aldatu zuten: «buelatu ginelarik bagenekien ez zela hala, hizkuntza txikirik existitzen bada, gureak bederen ez direla horietakoak. Ohartu ginen mapetan ageri ez diren hizkuntzak, mugak errespetatzen ez dituztenak direla pertsonak gehien mugitzen dituzte- nak, aukera eman zigutenak hainbertze istorio aditzeko, hainbertze partekatze eta ikasteko, funtsean geure burua ezagutzeko».

Pandemia garaiko bigarren udarako oharrek baino gehiago notak dira aipuok eta azken bat ere botako dut, Mexikoko nawat hizkuntzatik indigenen lurren aldeko borrokalari nekazaria den Bonifacio Iturbideri aditutakoa: «finean, kontua ez da nolako lurra uzten diegun gure seme-alabei, baizik eta nolako seme-alabak uzten dizkiogun gure lurrari». Doinua badugu, lotu nahi duzun neurrian.

11 GALDERA LABUR

ANDREA GOÑI MENDIBERRI ELIZONDOKO TRIKITILARIA

«Kanta bat mila modutara jotzen ahal dela ikasi dut»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Trikitixa jotzen duen 20 urteko elizondoa.

Zein dira zure zaletasunak?

Naturarekin zerikusia duten ekintzak egitea eta musika dira nire zaletasun handienak.

Noiz hasi zinen trikitixa jotzen?

12 urte nituelarik erabaki nuen trikitixa ikasi nahi nuela.

Zergatik?

Tiki-ttikitatik gustuko izan ditut Alaitz eta Maider, Epelde eta Larrañaga, Maixa eta Ixiar, Tapia eta Leturia... bezalako taldeak eta akordeoia eta trikitixa.

Non ikasi zenuen?

Oronozen, Mendaurren Trikitixa Eskolan, Arkaitz izan zen nire irakaslea. Bortz urtez egon nitzen hor eta aunitz ikasi nuen.

Eta gaur egun non segitzen duzu klaseak ematen?

Orain Lasartera joaten naiz klaseak hartzera, Joseba Tapiarekin, nahiz eta klaseak ikasketekin uztartzea gero eta zailagoa den.

Nolako esperientzia izaten ari da?

Tapiarekin klaseak emanen nituela erran zidatenean sinestea kostatu zitzaidan. Urte hauetan aunitz ikasi dut, bellarria garatzen lagundu dit, kantak jotzerako orduan paperarekiko dependentzia ez izaten, behatzen teknika hobetzen... Horrez gain, kanta bat mila modutara jotzen ahal dela erakutsi dit, originalaren esentzia galdu gabe baina norberak bere ukitu pertsonala emanez.



Kantu propiorik konposatu duzu? Nolakoa da prozesua?

Bueno, zirriborro moduko batzuk eginak ditut; fandango, arin-arin, kantaren bat... Egia erran, ez dakit nola egin ditudan, inspirazio momentutxoak etortzen zaizkit eta horiek aprobetxatuz kanta zatiak mantso-mantso asmatzen ditut.

Zeintzuk dira zure erreferenteak?

Aunitz ditut: Korrontzi, Kepa Junkera, Itsaso eta Iruñe, Tapia eta Leturia, Alaitz eta Mai-

der... miresten ditut ttikitatik aditu edo txapelketetan ikusi izan ditudalako, baina norbait nabarmentzekotan Xabi Solano izanen litzateke. Esne Beltzarekin eta bere kabuz egindako kantei esker erabaki nuen trikitixa ikastea.

Zure asmoak epe motzera?

Trikitixarekin segitzea, kantak sortzen eta hobetzen.

Eta epe luzera?

Talderen batean sartzea edo bat sortzea gustatuko litzaidake, trikitixa presente egonik.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Mairidireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Etxe Xuriko Isabeli Doneztebe-ko liburutegitik

MARGA ERDOZAIN | DONEZTEBE

Isabel, gaur liburutegiko argiak itzali ditudanean magia gertatu da, dena ilunpetan zegoen, baina bat-batean hamaika argitxo piztu dira, keinuka ziren, izarak balira bezala. Harriturik, hurbildu naiz eta konturatu naiz zuk irakurritako liburak zirela: argi distiratsu, keinuka, zure epitafio poetiko eta magikoa xuxurlatuz. Etxeratu naiz eta gauean zurekin amets egin dut.

Isabel, 88 urteko emakume berezi bezain interesgarri zinen. Garai zail batean sortua, baina bizitza interesgarri harilkatuz bidaiatu duena, beti liburuen magiaren babespean biziz. Azken hilabeteetan arnasteko laguntza behar zenuen, baina emozionatzen naiz jakitean azken uneraino liburua ere bizitzeko behar zenituela. *La rueda de la vida*, *Pequeñas mujeres rojas*, *Un amor* eta *La sombra que habita en tus ojos* izan dira zuk irakurritako azken liburua.

Ia 90 urteko emakume moderno, kritiko eta ulerkor bikaintzat zaitut, niretzat eredugarri. Zurekin egindako solasaldiak liburutegiko paretetan ere grabaturik gelditu dira (baita nire bihotzean ere). Irakurtzea gustuko zenuen eta horregatik bizitza era berezi batez begiratzen zenuen, espiritu aske, ireki eta bitalista zinen. Zenbat ikasi dudane zurekin.

Hiltzen garenean era aunitzetako ondarea uzten omen dugu, ba ni konbentzitut nago gure epitafioetan eta gure ondaretan irakurritako liburua, jasotako ikasgaiak, jabetutako pentsamolde, ideia, hausnarketa, gozatutako uneak, bizitako abenturak... horiek guztiak grabaturik gelditzen direla. Eta ondasun hori hemen

gelditzen da, mila esker Isabel! Jarraituko dut liburutegiko argiak itzaltzen eta zuk piztutako argitxoekin amesten. Iruditzen zait argitxo hauek zerura ere bidaiatuko dutela eta gure itsasargi bilakatuko direla, zu bezalako pertsonen mundu eta gizarte hobe eraikitzen baituzue. Etxe Xuriko Isabel, segi liburuen berotasunpean kulunkatzen.

Egun magikoa

IXABEL DANBORIENA | ARANTZA

Egun magikoa bai, horixe izan zen ekainaren 26koa. Ezustekoz eta emozioz betetakoa. Alaitasunetik eta esker onetik ederki antolatua, bai horixe!!!

Hamaika eta erdiak aldera hara, txistu soinu Larretako bidean. TXISTUA!!! Ai ama! Hantxe hasi zen nire bihotza saltoka. Gero haurrak, gurasoak, dantzariak, etxeak, herritarrak. Akabo! Prestatuta genituen pastak, gerez eta pastela ez ziren nahikoak...

Kanpora atera eta zapi eder bat jarri zidaten bizkarrean eskerrak emanez, txaloak, irribarreak. Gero, eskolarantz guztion babesean, laguntasunean eta eguraldia ere gure alde gendularik. Polita benetan, hunkigarria...

Eskolan, berriz, dena antolatuta eta nola gainera!!! Hemen berriz ere, txaloak eta jendearen esker ona.

Oholtza gainean, hantxe hasi ziren *Api*, Juanita, Maite, Mirari eta Ander bihotzetik ateratako hitz goxoak helarazten Jaioneren gitarraren soinuez lagundurik. Beñatek, berriz, bere kantua akordeoia lagun zuela: lehengo eta oraingo kontuak, pasadizoak, laudorioak, esker oneko hitzak. Hunkigarria!! Eta nik, buroa motel, bihotza alai, malkoak begietan eta mingaina *katranbilatua*. Sentitzen

BOTA BERTSOA

ANE

ELIZAINCIN LARRE

IRURITAKO
BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO
BERTSOPAPER
LEHIAKETAN A MAILAN
AIPAMEN BEREZIA



Go!azen

Doinua: ETaren su etenetik

*Basakabin bildu dira
Goazeneko lagunak
udan pasatzen baitire
egunak eta egunak
Basakabiko aktore
politik eta kuttunak
kapitulu guztietan
zarete arras hitzunak
ostiraletan beti ere
ikusi nahi ditugunak
bero hori aguantatzen
zuek zate txapeldunak
Zuriñek eta Enarak
maite dituzte komunak.*

nuena ezin adierazi, horratx!!! Eta pastak eta pastela etxeko mahaiaren gainean...

Baina jakin ezazue, antolatzen eta parte hartu duzuen guztiak, nire barrarean, beti nirekin eramanez duten eguzki bero, indartsu eta argitsu bat piztu duzuela. Horregatik, larunbatekoa egun magikoa izan zen. *Enzerronak* esker ona zekarren eta hori bihotz-bihotzetik eskertzen dizuet. Apaltasunez...

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Bitxikeriak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Berriki hiztegia sarean eguneratu du Euskaltzaindiak eta 592 forma berri bildu ditu. Sarrera berrien artean daude:

- dedio
- nezaser
- zaurgarritasun
- jubilatuta
- telelaguntza
- heteropatriarkal
- serbitu
- koronabirus
- asintomatiko
- portzierto
- poney
- lasagna
- aerobik
- router
- putakeria
- izanki (izaki)
- tirantedun
- naziogintza

Hitz berriez gain, Euskaltzaindiak garai batean baztertu zituen hitz batzuk ere bildu ditu, «ez erabiltzeko gomendioa zuten arren, jendeak erabili dituelako». Horien artean daude hauek:

- aber
- abonua
- asanblada
- asanblea
- batzarre
- binario
- deskubritu
- despentsa
- edukatu
- emozionatu
- enteratu
- jubilaria
- taxista
- exijitu

Zein da zuzena?

'Ni futboleantrenatzen naiz'
ala **'Nik futboleantrenatzen dut'?**

Euskaltzaindiaren arabera, egitura zuzena 'Ni futboleantrenatzen naiz' da. Erabilera biak ditu *entrenatu* aditzak. Baina esanahiak bereizi behar dira:

- Ni futboleantrenatzen naiz
- Nik futbol-taldea entrenatzen dut.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...
Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Hieroglifikoa

Hi haiz hi ganoragabea!



-M



«Esperientziak dudana gehiago estimatzeko balio izan dit»

JON ZABALETA PERURENA GOIZUETAKO GAZTEA

«Momentu txarrak onak baino gehiago» izan arren, El Conquistador saioko esperientzia «izugarria» iruditzen zaio Jon Zabaleta Perurenari. Besteak beste, inguruan duen guztia «gehiago baloratzeko» aukera eman dio

N. BAZTERRIKA

«Pantailaren atzean zegoena zer zen ikusteko eta esperientzia barrutik bizitzeko» jo zuen El Conquistador del Caribe saiora Jon Zabaleta Perurenak (Goizueta, 1990). Hasierako helburua bete eta gaindituta egin du herrira buelta. «Izugarria» eta «gogorra» hitzak datozkio burura bizipenak oroitzean. Argitu duenez, «etxetik ikusten duguna programaren alde politena» da eta fisikoki ongi prestatuta joatea ez da aski: «esperientzia ederra da, baina gauzak argi izan behar dira, ehuneko handi bat psikologikoa delako».

Nola animatu zinen El Conquistadorren izena ematera?

Txikitatik ikusi izan dut eta beti izan dut gogoa. Kirolarekin zerikusia duen dueluak ikaragarri gustatzen zaizkit eta urteren batean parte hartzea gustatuko litzaidakeela esaten nuen beti, gose, biziraupen, talde harreman eta indar aldetik jasan nezakeena ikusteko. Neska-lagunak animatu ninduen, eta gehienbat bereziki egin nuen castinga. Beti esaten nuen baina utzi eta utzi... Biek egin genuen castinga eta hartu egin ninduten. Berari esker izan zen.

Nolako esperientzia izan da han bizitakoa?

Bi hitzetan laburbiltzeko izugarria eta gogorra. Momentu txarrak gehiago izan dira baina bizitako momentu onak txarrak



Finaleraino ailegatzea lortu zuen Jon Zabaletak.

gainditzeko dituzte. Hitzekin deskribatu ezin dena da. Azal dezaket, baina bizi gabe oso zaila da deskribatzea.

Zer izan da politena?

Jendearekin izan dudana harremana, elkar laguntza, ezagutu dudana jendea... Hasieratik esperientzia gogorra izan zen gurea, oso gaizki hasi ginen. Alde horretatik taldeari eskerrak eman nahi dizkiot. Errusiar mendia bezala izan da, batzuetan goian eta besteetan lur

azpian egon gara. Etxekoak beti buruan izan ditut, eurek esandako gauzak... Badakizu zurekin daudela baina ez daude hor eta momentu horretan zure taldearekin zaude.

Eta gogorrena?

Asko jaten dut eta gogorrena gosea izanzen zela uste nuen, baina ez da hala izan. Hutsarte luzeak genituen eta hori kudeatzea ez da erraza. Buruari buelta asko ematen dizkiozu. Alde horretatik sorpresa hartu

dut. Saio horretan % 80 psikologikoa eta % 20a fisikoa dela ikusi dut. Etxetik, familian, lanean... arazoekin joanez gero... Ni alde horretatik indartsu joan naiz. Momentu horietan joan aurretik esan zizkidaten hitz guztiez oroitu naiz. Joan aurretik esandako 'animo' bakoitzak indar handia eman dit. Izatez hilabete da baina urte eta gehiago etxetik kanpo egon zarela sentsazioarekin bueltatu nintzen. Lagunen, familiaren... falta handia izan dut. Ni nahiko hotza naiz baina hor sentimenduak mugitu zaizkit... Baloratzeko eta duguna estimatzeko ere balio izan dit. Etxean dena eduki eta ezerengatik kexatzen garela ikusi dut. Gainera, tenperatura aldaketa handiak izaten dira han. Euri asko egin digunez ondoeza, Moskitoen nekea...

Momenturen batean amore eman eta etxera bueltatzeko gogoa izan duzu?

Ez, ez dut dena utzi eta etxera joatea pentsatu. Alde horretatik ez nuen beldurrik, banekien neure burura hori ailegatzen bazen ezertarako on ez nintzelako izanzen zela, zainbhurturen bat izan nuelako edo. Kaskagogorra naiz eta...

Pantailan ikusi denaz harago, beste hamaika momentu bizi dituzue. Zer dago atzetik?

Pantailan ikusten dena han dagoen gauzarik politena da. Toki batean sartzen zaituzte, handik ezin zara mugitu eta gogorra da. Aberatsen kanpamentuan zure koltxoia hor duzu deskantsatzeko baina beste bi kanpamentuetan... ezin mugituz egon gara, lohia gerriraino sartzen ahal ziztaigulako... 10 litroko bidoi bat ur paratzen ziguten eta momentu batzuetan ez genuen ura edatera altxatzeko gogorik ere, indarra alferriki galtzea dela iruditzen zaizulako. Pixa egitera altxatzen ginenean aprobetxatzen genuen horretarako.

Kamera aurrean ibili zaren lehen-dabiziko aldia izan da? Nola ikusi duzu zeure burua?

Lehenbiziko aldia izan da bai eta nabaritu dela uste dut. Kamera aurrean lotsatuta ikusi dut neure burua, ez naizela ni izan sentitu dut. Ezagutzen nautenek ere isilik egon naizela eta gutxi ikusi nautela esan didate. Erdaraz aritzea bera kosta egiten zait eta ez da ez dakidalako baina... kameren aurrean jartzen nintzenean shock egoeran gelditzen nintzen, saihestu egiten nituen. Esperientzia bizitzera joan naiz eta lehenbiziko helburua horixe zen, Conquis zer zen ikustea. Finalean sartzea izugarria izan da.

Beko fans taldea eta guzti egin dute Facebooken... Zer sentitzen da zurekiko horrelako konfiantza dutela ikustean?

Oso eskertua nago. Programa bizi ondotik hor bukatzen dela pentsatzen duzu baina gero jendearen animoak aditzen dituzu, zu babesteko talde bat sortu dutela jakiten duzu, jende askok idazten dizu... alde horretatik izugarria da. Ez nuen horrelako erantzunik espero. Herrian ere asko babestu nauten, Goizuetan jende askok ikusi du programa eta telebistan ikusi ez diren gauzez galdetu didate, esaten diren gauzak egia diren...

Zer galdetzen dizute?

Janari kontua adibidez. Ea hasieran lau egun eta erdiegon ginen jan gabe... Hasiera oso oso gogorra izan zen. Han irabazten ez baduzu ez dute ura besterik ematen eta hori ere neurtua, 10 bat litro talde osoarentzat. Lehenbiziko hiru jokoak galdu genituen. Irabazi eta latak eskuan hartu genituen arteko denbora luzea izan zen. Azken batean, partaide guztiek programa bera baina bakoitzak berea bizi du... Zenbat eta gehiago irabazi gehiago jaten duzu, lau egunez lau kilo erraz galdu nituen. Hirugarren egunetik indarririk gabe negoen, gorputzak ez zidan segitzen, lo ere ez nuen ongi egiten... Alde horretatik ere oso gaizki pasatu dut.



Momentu gogorak bizi izan ditu goizuetarrak El Conquistador saioan.

Lau egunen ondotik proba irabaztea ederra izanen zen...

Bai, irabazita 14 lata eman zizkiguten. Bakoitzak bere modura kudeatzen du hori. Aurrera egin ahala antolatzen hasi ginen. Gehienez hilabete dela pentsatuta... Hasieran egunean lata bat jaten hasi ginen eta gero bi egunez deus jan gabe egoten ginen. Gero erdibana jaten hasi ginen. Horrela egunerok sartzen genion zerbait gorputzari. Berez ez da deus baina... mingainari gustua aldatzeko... Gauza gutxiarekin bizi gaitezkeela ikusi dugu, eta asko psikologikoa dela...

Duelurik egin ez izana kritikatu dizute...

Bai. Nik beti dueluren bat egiten nuela esaten nuen. Hala ere, ez dut inguruan El Conquistadorren izan den inor izan eta ez nuen horri buruz hitz egin. Sofatik telebistara bizi nuen. Arandak iaz egon zen batekin hitz egin zuela eta dueluetara boluntario ez joateko esana ziotela aipatu zidan. Gero kontrakoa egin genuen, bera joan zen eta ni ez. Boluntario joan eta etxera joan zela ikusi nuen, dueluak ikusten nituenean edozein etxera joan zitekeela ikusten

nuen. Orduan zergatik hartu behar nuen arrisku hori pentsatzen hasi nintzen. Zerbait gaizki eginez gero neure burua arriskuan paratuko nuen baina... lagunak eta kapitainak ez ninduten izendatzen eta, hori ikusita, zerbait ongi egiten ariko nintzela pentsatzen nuen. Bizpahiru joan ziren boluntario, gainerakoak izendatuta. Nik uste bigarren fasean dezenteko erakutsi dudala... Lau joko izan ditugu banaka erakusteko eta azkena etxera joaten zen. Niretzat hori ere duelua zen eta hor ere erakutsi nuen. Ikurrina eskuetan ez hartu izanaren pena dut, baita duelurik egin ez izanaren arantza ere, baina momentu horretan motiborik gabe arriskurik hartzea zela ikusten nuen eta bi lagunak ere ez zutela nire aurka egin nahi esan zidaten... Pozik nago taldekide eta lehiakide bezala programa txukuna egin dudala uste dudalako.

Familiako eta lagunak bideoak hunkitu egin zintuen...

Programan esan bezala, arreba eta koinatuak momentu txarrak pasatu dituzte eta ez nuen hor ikustea espero. Denak hunkitu ninduen baina horrekin gainezka egin nuen.

Finala nola bizi izan zenuen?

Aurten arraro samarra izan da. Finala aurrerago egin da. Nik nahiago nuen momentuan bizi, hasi eta bukatu. Asko entrenatu dut, ilusioz joan nintzen baina meritu handiagoa du dena sufrituta egiteak. Aurten egoera horrela izan da koronabirusarengatik...

Iparrorratza galdu zenuen...

Hasieratik gaizki hasi nuen. Marea bizi ikusi nuen eta txalekoarekin igeri egitea asko kostatzen zitzaidala eta kendu egin nuen. Gaizki hasi nuen, txalekoak kontrako efektua egiten zidan, atzera tiratzen ninduen eta leher egin nuen. Iparrorratza galdu nuen baina hor izanda ere, itsasoa zegoen bezala egonik, ez nuen egiteko aukera gehiegirik izanzen. Irlari buelta osoa eman eta mendiz igo behar izan genuen beste aldera pasatzeko. Itsasoa gogor zegoen eta ezinezkoa zen...

Nafar batek irabazteko garaia zela esan zenuen castingean. Eta hala izan da baina ez da goizuetarra izan...

Bai, nik niregan pentsatuz esan nuen hori (irri artean). Azken urteetan bizkaitarrak, gipuzkoarrak... ziren irabazle. Aurten ikurrina Nafarrora etorri da, baina ez nire eskuetara.



Maiatzaren 24an Leitzaan aurkeztu zuten Ados kluba, emakumezko esku pilotarien lehenbiziko klub profesionala.

Plazak denonak direlako

Abuztuaren 14an Leitzaan borobilduko da Ados klubeko emakumezko pilotari profesionalak jokatu duten lehenbiziko txapelketa. Irailetik aurrera gogor entrenatzea eta «urte osoko egutegi bat» antolatzea da asmoa

N. BAZTERRIKA

Berdintasunaren aldeko pilotakadak gero eta indar handiagoa hartzen ari dira. Azken urteetan, emakumezko pilotariek plazetan egindako ibilbideak ikusgarritasuna lortu du eta, Master Cup txapelketari eta Plazandreak saioari esker, etxe askotan pantaila bidez segitu ahal izan dira. Ikusgarritasun hori, ordea, «txapelketa jakin batzuetara mugatzen» zenez, harago jotzea erabaki zuten Maite Ruiz de Larramendik eta Iera Agirre Iturriagak (Leitza, 1987). Hala, maiatzean Ados emakumezko esku pilotarien lehenbiziko klub profesionala aurkeztu zuten. Ekainaren 4an abiatu zuten lehenbiziko txapelketa eta, ordutik, klubeko kide diren hamahiru pilotariak plazaz plaza dabil-

tza. Abuztuaren 14an Leitzaan jokatu den final handian banatuko dute lehenbiziko txapela. Hala ere, Agirrek azaldu duenez, irailetik aurrera emakumezkoen pilotak ez du etenik izan, urte osoko egutegia antolatu eta «urtero-urtero» horri eustea baita euren asmoa.

Klubaren sorrera

Emakumezko pilotarien «egituran ikusitako hutsuneak» betetzeko beharrari tiraka eman zituzten lehenbiziko pausoak. Ordura arte eginda-

ko bidean aurrera egin nahi izan zuten Ruiz de Larramendik eta Agirrek. Master Cup bezalako txapelketak «motzak» zirela iritzita, «jarraipena» emateko beharra ikusi zuten eta «pare bat urtez» aritu dira «egituratzeko eta buelta emateko» lanean: «azken urtean koronabirusa tarteko zailagoa izan da baina pilotalekuan ezin gurenez aritu kantxatik kanpo lan egiteko aukera izan dugu eta horretan aritu gara. Luze samar joan da...».

Bidea ez da erraza izan, ez dute nolanahi egin eta «zer

eta nola egin» erabakitzeko «buelta asko» eman behar izan dituzte: «hasieran profesionalizatu nahi bagenuen gizonzkoen pilota bideratzen duten enpresak etortzen zitzazkigun burura eta guk ez genuen hori nahi, helburua ez zelako etekin ekonomikoa ateratzea, den-dena pilotarien baldintzak hobetzeko izatea nahi genuen».

Laguntza eta babes

Aholkuak jaso eta norabidea finkatzeko «pilotariek bile-rak egin» dituzte eta «haiek esandakoa kontuan hartu» dute. Horrez gain, Nafarroako eta Euskadiko Federazioekin harremanetan jarri ziren: «Nafarroako Federazioa laguntzeko eta elkar hartuta lan egiteko prest agertu zen hasieratik, presidentea bera aurkezpenean izan zen... Hasi ginenean Euskadiko Federazioak hauteskudeak zituenez beranduago bildu ginen».

Jakin badakite emakumezkoen pilotari zabaltzeko eta merezi duen tokia emateko indarra elkarrekin eta norabide berean egin beharko dutela: «federazioen lana ezinbestekoa da, neskak zaindu eta babestu behar dituzte». Zentzu horretan, klub txikien

«IKUSGARritasuna EZ ZEN NAHIkoa, EGITURA ALDATU BEHAR ZEN»

«KLUBARI ESKER PILOTARION BALDINTZAK ASKO HOBETU DIRA»

osagarri da maiatzean aurkeztu zuten Ados kluba, neskei «eurek nahi duten arte pilotan segitzeko» aukera eman nahi diena: «klub txikiek eman diguten eta ematen diguten laguntza eskertzen dugu. Hala ere, segida izateko neskak biltzeak eta elkarrekin entrenatzeak aukera gehiago ematen dizkigula uste dugu».

Plazaz plaza, Leitzan hasi eta bukatu

Aurkezpen egunean bertan Plazaz plaza txapelketa ere ageriko egin zuten: «argi genuen klubarekin batera lehenbiziko txapelketa ere atera behar genuela». Bide horretan, «plaza, herriaren erdigunea» hartu nahi izan zuten, «txapelketara etortzen direnez gain, plazak bertatik pasatzen den herritarrei gelditzeko aukera ematen dielako».

Hasiera hartatik, partidak Nafarroako hainbat txokotan, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan baita Bartzelonan ere jokatu dituzte. Euskal Herritik kanpo jotzea ez da kasualitatea izan. Izan ere, «2006an Bartzelonan neska pilotarien hitzordu bat antolatu zuten eta 54 pilotari elkartu ginen. Hitzordu hartan Euskal Herrian zenbat emakumezko pilotari geunden ikusi ahal izan genuen, ordu-ra arte elkarren berririk ez genuen...».

Ekainaren 4an «ilusio haundiz» ekin zuten bidea eta halaxe borobilduko dute lehenbiziko txapelketa, Leitzan abuztuaren 14an jokatuiko duten finalarekin: «aurretik finalurrekoak Donamarian izanen dira, uztailaren 31n, 16:00etatik aurrera». Ibilbide horretan laguntzaile izan direnak oroitu ditu Agirrek: «jende askok animatu gaitu eta oso pozik gaude herrian eta inguru guztian izaten ari garen harrerarekin».

Baldintzak

Klubaren sorreraz geroztik, emakumezko pilotarien «baldintzak asko hobetu» dira.



Iera Agirre leitzarria izan da klubaren sustatzaileetako bat eta pozik dago jendartean izan duten harrerarekin.

Pilotari guztiek orain «lan kontratua» dute eta «jokatzen duten partida bakoitzean egingako lanagatik kobratzen dute». Horrez gain, partidaren egunean «Gizarte Segurantzaren alta ematen zaie eta aseguru bat dute». Orain artean ez bezala, «aseguru hori urte oso-rako da» eta horrek nolabait teko lasaitasuna ematen die: «federazioak antolatutako txapelketetan aseguru bage-nuen baina murrizta izateaz gain, gure txapelketak antolatze-ko aukerarik ez genuen. Gure txapelketak antolatze-ko aukera ematen zigun eta gauden tokian gaudela babestuko gintuen aseguru behar genuen».

Formakuntza

Profesional izatekotan, formakuntzan ere aldaketak beharko zituztela argi zuten: «bi adar horiek uztartu nahi izan ditugu». Hala, «entrenamenduei ere garrantzia» eman diote: «badakigu baldintzak

hobetu nahi baditugu alde horretatik ere lan gehiago eginge-ko prest egon behar dugula». Horretan «Elkar pilotako lagunak hasieratik ondoan» izan dituzte. Juan Martinez de Irujo, Patxi Eugi, Fernando Goñi eta Unai Arrizabalaga pilotari ohiak dituzte entena-tzaile eta Aritz Altadill presta-tzaile fisikoa laguntzaile. Sustatzaileen ustez, «baliabide horiek izatea aurrerapauso handia da».

Elkartu eta elkar zaindu

Entrenatzaile jakinak izateak, gainera, biltzeko aitzakia eman die; orain artean «bakoitza bere aldetik» aritu izan delako eta «nahiko bakarrik sentitzen ginelako».

Lehendik ere ohartuak ziren biltzearen garrantziaz: «duela urte pare bat Latasan gelditzen hasi ginen eta bidea hori zela ikusi genuen». Imozko Udalak emandako erraztasunari esker, nafarrek eta gipuzkoarrek bertan jarraitu

dute eta «bizkaitarrak euren taldetxo osatu eta Unai Arrizabalagarekin biltzen ari dira».

Uda «mugitua eta betea» izaten ari da klubeko pilotarientzat, «txapelketako partidez gain herrietako ez bestetan ere» ibili direlako eta babilazalako: «irailera bitarte agenda nahiko betea dugu».

Horrez gain, entrenamenduak ere izan dituzten arren, orain «trantsizio fasean» daude eta «irailetik aurrera zehaztu eta egituratzeko» asmotan dira: «frontoiko lana egiteko astean bitan bilduko gara eta fisikoa bakoitzak bere aldetik landuko dugu. Gure asmoa geldialdirik gabe, urte osoko egutegia osatzea da». Dena, ordea, bere neurrian egingen dute: «zoritarrez ezin gara horretaz bizi eta hori kontuan hartu behar dugu».

Lortutakoari eutsi eta aurrera egin

Lana eta «ordu dezente» behar izan dituzte emakume pilotariek aurrera egiteko eta bidea ez da erraza izan, baina «emakumezko pilotariek merezi dute». Orain, atzetik datozen neska pilotariak «zaintzea» da gakoa Agirreraren ustez, «bestela honek ez duelako etorkizunik izanen».

→

«URTE OSOKO EGUTEGI BAT EGIN NAHI DUGU ETENIK IZAN EZ DEZAGUN»

«ATZETIK DATOZEN PILOTARIAK ZAINDU BEHAR DITUGU»



Gaztetan pilota utzi behar izan zuen Elizalde, neskari ez zegoelako.

«Klubak orain artean izan ez ditugun aukerak emanen dizkigu»

Ados pilota klubaren sorreraren berria «ilusioz» hartu zuen Naroa Elizalde Etxekoloneak (Zubieta, 1997) eta, horren berri izan bezain agudo, «dudarik egin gabe» bertan parte hartzea erabaki zuen: «pilotan murgilduta segitzeko aukera hori zela ikusten nuen...».

Klubari esker, «entrenamenduak, aseguru, kontratua...» izanen dituzte pilotariek: «orain arte izan ez ditugun aukerak emanen dizkigute». Elizalderen ustez, «maila hobetzeko baliabide horiek beharrezkoak dira». Eta, klubaren sorrerarekin, kirolariek aldaketak egin beharko dituztela uste du: «orain artean partidaren bat genuenean norberak erabakitzen zuen zenbat eta noiz ari». Orain, berriz, «talde bat» izanik, «konpromisoa» hartzeko beharra ikusten du: «denbora gehiago eskaini, entrenamenduak egin, zaindu...».

«Hobekuntza handiak»

Emakumezkoen pilotari «ikusgarritasun handiagoa» emateaz gain, kluba «gazteen etorkizuna bermatzeko» giltza izanen dela iruditzen zaio: «egun klubean gaudenok ttikitari utzi behar izan genuen eta ondokoek aukera izatea garrantzitsua da».

Gehiago ere bada: «atzetik heldu direnak gogor heldu dira, maila ona dute eta horrek ikusgarritasunean ere eragina izanen duela uste dut». Modu berean, gainera, «aurrera egiten» ere lagunduko duela iruditzen zaio. Argi du «denbora» behar izanen dela, baina «baldintzak hobetuz, baliabideak jarritz, laguntzak emanez...» berdintasunerantz pausoak eman daitezke: «fisiologikoki emakumezko eta gizonen aldea kontuan hartuz, indar aldetik zailagoa izanen da baina baldintza aldetik, epe luzera begira, ez dut ezinezkotzat jotzen baldintzak berdintze hori».

Orain arteko emakumezko pilotariek bizi izan duten nahiak bete ezin eraman ditu horretara: «guk esku pilota utzi behar izan genuen eta palan hasi ginen. Inork ez

zuen pauso bat eman gure-gatik eta 12-13 urtez aritu gabe egon ondoren hau lortu dugu».

Pozik daude lortutakoarekin, pozik bidearekin eta horri eutsi nahi diote. Eutsi eta,



Etxebestek «ahalik eta maila onena» eman nahi du pilotalekuan.

«Pilotarioi gure maila ematen lagunduko digute baldintzek»

«Helburu amankomun bat elkartzeko etxea sortzea». Horixe da Irantzu Etxebeste lantziren (Bera, 1987) ustez Ados pilota klubak egiten duen ekarpen handiena. Euren baldintzak hobetzen ez ezik, «ondotik datozen pilotarienak» garatzera bidean, «mugarri» izan dela uste du eta «etorkizuna eraikitzeko beharrezko bidean» sartu direlakoan dago.

Lehenbiziko txapelketan plazaz plaza ibili dira, «pilotaleku irekietan jokatzeko ikusleengandik hurbil egon nahi dugulako eta gure jokoa ikusarazi nahi dugulako». Horretarako, partida gehiago, kontratupean eta «aseguru eta soldata batekin» jokatzeko dituzte. Etxebesteren ustez, baldintzak «nabarmen» hobetu dira eta «gehiago» hobetuko direlakoan dago: «pilotariok gure maila eman nahi dugu pilotalekuan, eta baldintza horiek lagungarri dira». Baldintzak, ordea, ez dira aski, «konpromisoa» ere behar da. Hortaz, «gehiago entrenatu, forma fisikoa zaindu eta pilotalekuan orduak» pasatzen ditu beratarrak «ahalik eta maila onena emateko asmoz».

Egindako bideari hurrengoek segida

Urte guttitan «aurrerapauso handiak» eman diren arren, Etxebesteren arabera, «egiteko aunitz» dago eta bide horren parte-hartzaile sentitzea «pozgarria» da: «ezinezkoa zirudiena bizitzen ari gara, guk ez genuen erreferenterik eta bat-batean mugimendu honekin aurkitzeak ilusio handia eragin digu, indar haundia eman digu». Euren egin dutenari ondokoek segida emanen dietela ikustea ere aberatsa da berarentzat: «gaztetxoek Plazaz plaza txapelketan gure aitzinetik partida jokatzeko aukera dute, esperientzia hartzen ari dira... Hagitz maila ona dute eta aitzinerago maila oneko pilotariak ikusiko ditugu».

ahal bada, aurrera egin: «oraindik emakumezko eta gizonen arteko arrakala ikaragarria da eta».

Itxaropentsu da Agirre. Pixkanaka «buelta ematen hasia»

dela ikusten duelako: «bide horretan segitzen bada, poliki-poliki, emakumezkoak ere pilotatik bizitzea lortuko dela uste dut, hala nahiko nuke behintzat».



Lesakan eta Beran izanen da udan Eñaut Castagnet (erdian) film laburrerako prestaketak egiten.

«Bertako jendeak ere filmean parte hartzea nahiko nuke»

EÑAUT CASTAGNET BIDARTEKO ZINEMAGILEA

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak programaren parte-hartzaileetako bat da Eñaut Castagnet, 34 urteko zinemagile lapurtarra. Bera eta Lesaka herriak egokitu zaizkio eta bertan film labor bat grabatuko du hurrengo hilabeteetan Gastibeltza Filmak ekoiztetxearekin

R. OSKARIZ

Euskal Herri osoko 26 artista parte hartzen ari dira Geuretik Sortuak programan. Haien bizilekua utzita, zinegile, idazle eta antzerkigileek 16 ipuin, bortz film labor eta bortz antzerki sortuko dituzte, esleitutako herriak oinarritzat hartuz.

Zergatik erabaki zenuen programan parte hartzea?

Lehen aldia da horrelako ekimen bat egiten dela, eta onuragarria eta beharrezkoa iruditzen zait Euskal Herriari zubiak eraikitze, ipar-hego eta eki-mendebalde. Jendea eta lekuak ezagutzeko ere baliagarria izanen dela uste dut. Zinez ekarpen handiak egiten

dituzte proiektu hauek, bai profesionalki baita pertsonalki ere.

Zein fasetan dago proiektua?

Film laburraren gidoia idazten ari naiz orain. Lesakan eta Beran inspiratzeko, hainbat joan-etorri eginen ditut udan zenbait etapatan: gidoia idazteko, lokalizazioak ezagutze... Argazki eta arte-zuzendariekin ere bilduko naiz lokalizazioak begiratu eta zehazteko. Udalekin elkartzen hasi gara dagoeneko egutegia zehazteko.

Nolako eragina izan dute Berak eta Lesakak film laburrean?

Bi herri hauek ez nituen ia ezagutzen, eta kontent nago helburua justuki leku eta jen-

de ezezagunak ezagutzea delako. Jadanik banuen gidoiaren ideia deialdira aurkeztean, eta orain istorio eta lokalizazioak egokitu beharko ditut. Hala ere, fikzioa gustatzen zait eta ez da Lesakan edo Beran gertatuko, herri fiktizio batean baizik, pertsonaia eta istorio fiktizioarekin. Dena den, errealitatetik abiatuta, lokalizaio eta dekoratuak egiazkoak izanen dira.

«MALKOAK ETA IRRIAK NAHASTU NAHI DITUT FILM LABURREAN»

Bertako aktore eta ekipo teknikoaren bila ari zara...

Bai, nahasketa egin nahiko nuke; bertakoak etanpokoak, profesionalak eta ez profesionalak... Hainbat zuzendarik egin ohi dute hori. Adibidez, Lesakako ostatu batean eszenaren bat grabatzen badugu, ez dugu zerbitzari bat kontratatuko bertakoa filmean parte hartzeko prest baldin badago. Paperak eta lokalizazioak zehaztean deialdi irekia eginen dugu gogoa duen jendeak parte har dezan.

Zer kontatzen ahal diguzu filmari buruz?

Izenburua behin-behinekoa da, baina oraingoz *Muga* du izena. Mugez eta hauek zeharkatzen dituzten pertsonen buruz izanen da, zehazki mugak zeharkatzen dituzten etorkinei buruz. Haien bidaia segitzea izanen da istorio nagusia. Film iluna izanen da, baina umore pixka batekin, ez dut izugarritzko drama izatea nahi. Gaia aski dramatiko da, baina bizitza aldrebesa da eta absurdo hori komedia gisa sartzea gustatzen zait. Malkoak eta irriak nahastu nahi ditut. Estetika eta erritmo aldetik, *western* estiloa gustatzen zait eta horren kutsu bat ere gehitu nahiko nioke.

Noizko aurreikusi duzu filma bukatzea?

Uda ez da garai aproposena proiektuak lantzeko, gehienak oporretan daude eta zaila da jendea mobilizatzea. Asmoa aktoreak, lokalizazioak eta *atrezkoa* udan zehaztea da eta irailean bilkura publikoak eginen ditugu Beran eta Lesakan proiektua aurkezteko eta jendea etorrazteko. Filmaketa azaroan eginen dugu, datak zehazteke daude oraindik, baina erdialdera izanen da. Grabaketa bukatzean, film laborra film orokor baten parte izanen da, Geuretik Sortuak programako bertze lau zinemagileen lanekin batera. Urte bukaerarako prest egon beharko du gero Udalbiltzak zabal dezan.

Bandalismoari konponbidea eman nahian bilduak

Prebentzio lanaren beharra azpimarratu zuten eta salaketa egiteko agerraldia ere ez dute baztertu Bortzirietako udalek

TTIPI-TTAPA

Herrian gertatzen ari diren «txikizioak» ikusita, konponbidea emateko udalak deitutako bileran 33 lagun bildu ziren uztailaren 13an. Alkateak arazoa ageriko egin zuen eta bi bideak bereizi zituen: bate-tik, gaueko gehiegikerien eragina (materiala haustea, edukiontziak errekan...) eta, bertzetik, egunez egiten diren kalteak (frontoiaren erabilera desegokia, parkeetako zikin-keria, materiala haustea...).

Bortzirietako alkateak gaia lantzen ari direla nabarmen-

du zuten, «erantzun komuna emateko» eta proposamenen artean «salaketa egiteko agerraldiren bat egitea» dute buruan. Horrez gain, bileran hainbat proposamen bildu zituzten:

- Txikizioak egiten dituztenak zein diren ezagutu eta nola eragin ikustea.
- Isunen ordezkariak lanak egitea.
- Kontratatuak pertsonekin gaueko zaintza egitea.
- Adingabekoen kalteei dago-kionez gurasoen zer errana eta heziketa arazoa agertzea.



33 herritar bildu ziren arazoaz solastatzeko uztailaren 13an. UTZITAKOA

Bide batez, elkarte guztien artean sentsibilizazio-kanpaina egitea egokia izanen litza-tekeela adierazi zuten eta «kalte horiek eragiten duten kostua zabaltzea egokia» dela iritzi zuten. Lan horretan, gainera, «gazte taldeak eta nerabeen familiak» sartu beharraz ere aritu ziren:

Egitekoak

Epe laburrean, kuadrilletako kideekin prebentzio plan bat

egitea eta gurasoei, ardurak azpimarratuz, Gizarte Zerbitzuetatik idazki bat bidaltzea aipatu zuten, baita Agoitzen egin den moduko bideo bat argitaratzea ere.

Epe ertainean «hausnarketa lantzeko arazo horiez galde-tegiak lan daitezkeen» aztertuko dute eta, gerora begira, «egiten dena baloratu eta defendatzeko gazteen arteko auzolanak ere» egiteko aukera aztertuko dute.

Ansonea ostatu · jatetxea

T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 · BERA

Goieko INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESIN BERA

DESINSEKTATZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMENDUAK

T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

Jaurena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Alberto RETEGI

abokatua

948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

Anterola
Tecnico instalatzailea 629 449 602

ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK
AIRE GIROTUA
KOMUNEKO & SUKALDEKO OSAGARRIAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Zerbitzu & Gremioen koordinazioa

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana abian

Udal eraikin eta instalazioetan, bizitegietan eta etxeko hondakinetan % 40 murriztu nahi da CO2aren isurtzea

TTIPI-TTAPA

Nafarroako 154 udalerrik Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Ituna sinatu dute. 18 plan paratuko dituzte martxan Nafarroako eskualdeetan, haien artean Bidasoan.

Europar Batasunak 2030era-ko ezarritako helburuak betetzen laguntzeko, neurriak prestatzen eta aztertzen hasi dira. Nafarroako Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Agentziak abiatu du plana.

Udalen eraikin eta instalazioetan, bizitegietan, etxeko hondakinetan eta garraioan

(Iruñerrian) CO2aren isurtzea %40 murriztea du helburu planak, 2005eko datuak oinarritzat hartuta. Honez gain, klima-aldaketak udalerrietan eragin ditzakeen arrisku eta ahultasunen azterlana ere egingen dute, eta erantzunekin egokitzapen-estrategia bat prestatu neurriak ezartzeko.

Herritarren parte-hartzea garrantzitsua izanen da prozesu honetan, itunaren erabaki eta konpromisoek udal-letako teknikarien, politikarien eta herritarren ekarpenak jaso beharko dituztelako.



LABE ZAR

Astelehenetik ortziralerara:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA



BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 Atea 21-22 • **BERA**



· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) **636 617 450**
Legia, 23 - **BERA**



jaione goya

ileapaindegia mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462



ARRAINDEGIA

Itzea, 6 • **BERA**
948 63 09 81
620 82 87 57



LIXOIA

OSTATU - JATETXEA
Itzea, 2 - 31780 BERA
948 631 271



ERREKALDE
o s t a t u a

PLATERAK · PINTXOAK
BOKATAK · RAZIOAK
MENUA

BERTAN JATEKO EDO
ETXERA ERAMATEKO AUKERA
T. **948 630 259 • BERA**



KATEA BIKE

Bizikleten salmenta eta konponketa.

📍 Kanttonberri, 1 | BERA
☎ T. 948 631 218
✉ joxemi@kateabike.com
🌐 **www.kateabike.com**

*Uda berria
"bizi" berria!*





Materia organikoa birziklatzeko martxan bosgarren edukiontzia

Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzik materia organikoa birziklatzeko bosgarren edukiontzia dituzte joan den astetik

TTIPI-TTAPA

Lesakan lehendik ezarrita zegoen materia organikoa birziklatzeko bosgarren edukiontzia eta aste honetatik aitzinera Bortzirietako gainontzeko lau herrietan paratuko dute. Bortzirietako 8.500 biztanleri emanen die zerbitzua eta etxean sortzen diren hondakinen % 45 biltzea ekarriko du.

Aurkezpenean Bera, Arantza, Etxalar eta Igantziko udal ordezkariak eta Bernardo Ziriza Nafarroako Gobernuak Lu-

rralde Kohesiorako Kontseilariak hartu dute parte. Zirizak zerbitzu honen garrantzia nabarmendu zuen eta heldu den asteetan materia organikoa banatzeko sentsibilizazio kanpainak egingen dituzte.

120 edukiontzia

Guztira 120 edukiontzia marroi jarriko dituzte materia organikoarentzat, herriguneetan dauden edukiontzen alboan jarriko dira. Sistema orain arte martxan zeuden konpostaje komunitarioko guneekin, etxe-



Etxalarren egin zuten bosgarren edukiontziaren aurkezpena. UTZITAKOA

ko konpostajearekin eta hondakinak sortzen zituzten zentro handietako bilketekin lotzen da. Horrela, materia organikoaren bereizketa biztanleria osora zabalduko da. Gaur egun, Bortzirietako Mankomunitatean sortzen diren bio-hondakin guztien % 53 berreskuratzen da. Nafarroa osoko bigarren mankomunitatea da, Sakanakoaren ondotik. Bosgarren edukiontzia zabaltzeko, herritarrek sen-

tsibilizatzeko kanpaina bat egingen da aste honetan. Etxetara bidali diren eskutitz eta triptikoekin batera, herritarrek atez ate bisitatuko dituzte, materia organikoa jatorrian ongi bereizteak duen garrantzia banan-banan azaltzeko, eta 10 litroko ontzi marroia emanen zaie hondakinak uzteko. 92.000 euroko inbertsioa egingen dute materiala erosteko eta kontzientziazio kanpainarako.

JAKONE-GOZOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

BERRI S.L.

TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

ZUBIONDO

JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA, SAGARDOTEGI MENUA
KARTA, OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK...

T. 948 625 472 • Alasta karrika • BERA
zubiondojatetxea.com

ANTZUZELAI S.L.

BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK

PRIM, c.b.

Fisioterapia Zentroa

K-STRETCH® K-STRETCH

Helbide berria

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA

Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina tolosaechepeare



Alkatea eta LABeko Begoña Arakues, hitzarmena sinatzen. UTZITAKOA

Hitzarmen kolektibo berria lortu dute zahar etxean

LAB sindikatuak adierazi duenez, «negoiazio luze eta zail baten ondoren, akordio bikain bat lortu dugu»

AITOR AROTZENA

Andra Mari helduen egoitzako langileek akordio berria sinatu zuten uztailearen 16an, «hobekuntza handiak ekarriko dituen».

LAB sindikatuak adierazi duenez, «negoiazio luze eta zail baten ondoren, akordio bikain bat lortu dugu». Akordioak «hobekuntza ekonomikoak zein eskubide sozialak dakartza». Hauexek dira lortutako baldintza berriak:

- Indarraldiko urte bakoitzeko soldata igoera (%1 gutxienez urte honetarako, %1,5 2022an eta %2 2023an).
- Baja profesional eta arruntetan %100 kobratzea.
- Antzinasuna hobetzea.
- Kontratazio berrietarako zegoen soldata-maila bikoitza kentzea.

- Errelebo kontratuak eta ordezkatzeko lanaldi osorako kontratatzeen betebeharrak.
- Gaueko lanaren plusa hobetzea.
- Norberaren aukerako egun ordainduak.
- Medikuairengana joateko eta ahaideak zaintzeko ordaindutako lizentziak hobetzea.
- Adinekoak zaintzeko eszedentzia 2 urtetik 3ra luzatzea
- Kontratazio berrietarako probaldia murriztea.
- Nafarroako zahar egoitzen hitzarmenean adostu daitezkeen hobekuntzak zuzenean aplikatzea.

LAB sindikatuaren ustez, «akordioak «hobekuntzak baino ez ditu jasotzen, atzera-pausorik ez. Beste urrats bat da zaintza sektoreko langileak duintzeko».

«Inoiz baino ardura handiagoz» jokatzeko deia egin du udalak

A. AROTZENA

Gogor astindu du herria koronabirusaren olatuak eta uztailako bigarren hamabostaldirako iragarriak zeuden kultur ekitaldiak eta udalekuak bertan behera utzi behar izan dituzte. Igerilekuak eta liburutegia ere itxita egon dira.

«Momentu gogorak bizitzen ari gara, azken egunotan Lesakan Covid-19aren kutsatuak egunetik egunera gehiago dira, Herriko ia etxe guztietara ailegatu da bere eragina». Halaxe zioen Udalak argitaratu zuen prentsa oharra.

Egoerak eragindako «hausnarketak egin eta ondorioak baloratzeko» momentuak etorriko direla argitzearekin batera, «egoerari aurre egin behar zaiola eta inoiz baino ardura handiagoz jokatu behar dela» nabarmendu zuen uda-

lak. Horretarako, osasun alo-rreko adituek emandako jarraibideak betetzeko eskatu dute: «pertsona ahulekin kontaktua saihestu, gizarte elkarrekintzetan maskara erabili, sintomarik izanez gero bakartu eta osasun-zerbitzuekin harremanetan jarri».

Osasun etxean «froga eskari guztiei erantzuteko gogor» ari direla ere azaldu dute eta, hortaz, «eskerrak» ere eman nahi izan dizkiete «euren jarrrera eta inplikazioagatik».

Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuaren gomendioari jarraiki bi asteotako ekitaldi guztiak bertan behera utzi ditu udalak eta, oraindik goiz bada ere, «data berriak zehazten» saiatuko direla nabarmendu du, kutsatuei eta konfinatuei animoak bidali bidenabar.



UTZITAKOA

Futbol campusa hankamotz

Erriberako Futbol Eskolak futbol campusa antolatua zuen aurtien ere. Uztailearen 11tik 17ra 11-12 urtekoak aritu ziren futboleko trebatzen eta bertze zenbait ariketa egiten. Uztailearen 19tik 25era 9-10 urtekoen txanda zuten, baina osasun egoera kontuan hartuta, bertan behera utzi zuten.

Hemen erabili
Denok Bat
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
T. 948 637 826

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara
Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA T. 948 631 106 W. www.zalain.info



Igandean Beran gaez lasterketa egingen dute Manttalek antolatuta.



Led Silhouetterekin dantza entsegu irekia egingen dute larunbatean Lesakan.

Kultur eta kirol eskaintza zabala ondoko egunetan

Ortziralean Lesakan Xabi Solano eta Zigor DZa ariko dira eta igandean Berako Gau Lasterketa egingen dute

TTIPI-TTAPA

Osasun egoera tarteko, hainbat ekitaldi alde batera gelditu badira ere, ortzegun honetatik aurrera ere izanen da non gozatu Beran eta Lesakan.

Lesakan musika, dantza eta gehiago

Lesakan, ortzegunean, hilaren 29an, Xabi Solano eta Zigor DZren kontzertua izanen da Irubideko atarian, 19:30ean. Ortziralean, berriz, sormen ginkana egingen dute, 18:00etan Biurranan.

Larunbatean hitzordu bikoi-tza antolatu dute: goizean, 10:00etatik 14:30era merkatu ttikia egingen dute Beheko Plazan eta arratsaldean, 19:30ean, Led Silhouette konpainiarekin dantza entsegu irekia egingen dute 19:30ean Harriondoko atarian. Asteburua borobiltzeko, igandean, Txamukos mariatxi taldearen emanaldia izanen da Onin erreka gainean, 12:30ean.

Abuztuaren 6an, ortziralean, Tenpora musika izanen da 20:00etan Plaza Zaharrean, eta abuztuaren 8an, igandean, Yijaa antzerki familiarra ikus-

teko aukera izanen da 19:00etan Iturbenako plazan.

Beran musika, kirola, antzerkia...

Beran ere ez da ekitaldirik faltako. Igande honetan, abuztuaren 1ean, batetik, Caraband jazz taldearen *A dream of jazz* kontzertua izanen da, 19:00etan Alzateko plazan, eta bertetik, gau lasterketa. Manttale Mendiko Lasterketa Taldeak antolatutako 7,3 kilometro eta 300 metroko desnibel positiboa duen VII. gau lasterketa 22:00etan hasiko da Merkatu Plazan.

Abuztuaren 7an, 11:00etatik 14:00etara, Jokairekin, egurrez egindako eta euskal mitologian inspiratutako jolasetan aritzeko aukera izanen da Merkatu Plazan. Ez da eguneko hitzordu bakarra izanen. Arratsaldean, Joseba Tapiaren kontzertua antolatu dute, 19:00etan, Alzateko Plazan.

Horrez gain, larunbatean, uztailaren 31n, inauguratuko dute Ignacio Larraren *Nire gurasoei omenaldia* erakusketak, 19:00etan. Abuztuaren 29ra arte ikusgai izanen da kultur etxeko erakusgelan.




Iñarreta, 4 - ETXALAR
M. 647 00 73 94

www.etxalarescaperoom.com



Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427



ITXIERA LIKIDAZIOA
bixkiak

Lesaka
Arretxea Karrika 9

948 638 110
@bixkiak

14 urte eta gero Usategietako Igoera berreskuratu dute

Uztailaren 31n antolatu dute motor proba herriko gazteek eta Malerreka MotorSportek, larunbatean 15:00etan hasita

IRUNE ELIZAGOIEN

Malerreka MotorSport eta Etxalarko gazteek elkarlanean XI. Etxalarko Usategietako igoera berreskuratu dute uztailaren azken egunerako. Hamalau urte joanak ziren antolatu gabe.

Egun honetan, uztailaren 31n, 13:30etik 19:00etara errepidea moztuta egonen da lasterketa burutu ahal izateko. Dena den, antolatzaileek pase bereziak emanen dizkiete bertako bizilagunei, beharrezkoak dituzten joan-etorriak egiteko. 15:00etan hasiko da lehenen-

go entrenamendu manga eta guztira bi entrenamendu eta bi txanda ofizial izanen dira. Arratsaldeko 20:00etan izanen da sari banaketa Etxalarko plazan. Eskerrak eman nahi dizkiete hau aitzinera ateratzen lagundu duten babesle guztiei eta, bide batez, motor hotsa gustuko duten guztiak gonbidatuak gelditzen dira, Etxalaren egun eder bat pasatzeko. Eguna hurbiltzen denean dagoen egoera ikusita, baliteke antolatzaileek ekitaldia bertan behera uzteko erabakia hartu behar izatea.

Haurraren Eguna abuztuaren 1ean ospatuko dute

Herriko bestetan haurraren egunik izanez ez denez, abuztuaren 1ean ospatuko dute herriko ttikienek beraien eguna. Navar producciones enpresaren eskutik, haurrentzako jokoak antolatu ditu udalak. Honez gain, tren txutxua ere ibiliko da goiz-arratsaldez.

Herri kirol txapelketak bertan behera

Covid-19ak zonaldean eman duen astinaldia dela eta, uztailaren 18an jokatzekoak ziren Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketako kanporaketa eta Nafarroako txingera-eramate txapelketa bertan behera geratu ziren. Aitzinerago jakinaraziko dute data berria.



MARTXEL LARRAZA

Udalekuak nahi baino lehen bukatuak

Uztailaren 5etik 15era, Joana Bengoetxea, Aimar Iparragirre eta Martxel Larraza dinamizatzaileekin, 30 haurrek udalekuez gozatu dute. Nahi baino lehen etorri zaie ezusteko albisteak, zonaldeko egoerak baldintzatuta, udalekuak bertan behera geratu baitziren. Aspertzeko astirik ez zuten izan lehen egunetan.

XAGU
LIBURUDENDA
Tel./Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBURU EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Ainhua Altzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.
BERA - M. 630 97 21 89 - ainhooaltzuguren@gmail.com

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



Joan den uztailaren 19ko goizean Zalaingo langileek egindako kontzentrazioa. ELA SINDIKATUA

Aurreakordioa adostu dute Zalaingo lantegian

Enpresako zuzendaritzak eta CCOO, UGT eta LAB sindikatuak alde agertu dira; ELA, ordea, kontra

TTIPI-TTAPA

2020ko urtariletik negoziazioekin bueltaka ibili ondotik, aurreakordioa adostu dute Condesa taldeko Zalain lantegian. Bidea, ordea, ez da laburra izan. Hasteko, pandemia dela eta, alde batera utzi behar izan zituztelako negoziazioak, eta bertzetik, tartean greba egin zutelako. Hainbat bilera egin ondotik akordiorik lortzen ez zutela ikusita, uztailaren 15ean hasi zuten lanuztea, langile batzordea osatzen duten sindikatu guztien adostasunarekin (ELAk 5, UGTk 3, CCOOk 3 eta LABek 2) eta langileen asanbladaren % 96ko babesa lortuta.

Helburua argia zuten, 2017tik 2019rako hitzarmena agortua zegoenez, berria sinatzea, eta «lan hitzarmen duina» izatea. Horian zuten uztailaren 15ean hasi eta sei egunez greba egiteko arrazoia. Sindikatuen hitzetan, gainera, grebak «babes zabala» izan zuen. 22ra arte iragarria zuten greba, eta tarte horretan hainbat bilera egin zituzten enpresak deituta. Horren harira, «mobilizazioak planteatu arte zuzendaritza serioski negoziatzen hasi ez

izana» gaitzetsi zuen Juan Manuel Altzuarde UGTko ordezkariak eta Mikel Agirre LABeko ordezkariak «pandemiaren aitzakiarekin gauzak estutu eta aldatu nahi izatea» leporatu zion enpresari.

Azkenean uztailaren 20ko bileran lortu zuten lan hitzarmena sinatzeko aurreakordioa: LAB, UGT eta CCOOk alde bozkatuta. ELAk, ordea, kontra egin zuen, Karmelo Conde ordezkariaren eta langile batzordeko presidentearen arabera, «ez dituelako langileen arteko bazterketak alde batera uzten».

Aurreakordio hori biharamunean, uztailaren 21ean, aurkeztu zuten langileen aitzinean, eta asanbladak berretsi egin zuen. 96 langilek baieztatu zuten, 66k ezetz eta zazpi boto zuri izan ziren. Aldi berean greba bertan behera uztea erabaki zuten eta egun horretan bertan hasi ziren lanean langileak, arratsaldeko txandan.

Orain, adostutakoa paperean idaztea gelditzen da, eta hori enpresak eta langile batzordeak egingen dute. Hori eginda, lan hitzarmena 2023ra arte indarrean izanen litzateke.

Sindikatuaren balorazioak

Lan hitzarmena sinatu izana, «arras positibotzat» jo du UGTko ordezkariak. Bere irudiko, «langile guztiek hobekuntzak» izanen dituztelako, nahiz eta «langile batzuek bertzeek baino hobekuntza gehiago» izanen dituztela aitortu duen. «Hitzarmena aitzinera atera izana» nabarmendu du Altzuarde eta azpimarratu duenez, «plantillak erabaki du zernahi duen. Emailtzak dira horren erakusle».

LABentzat ere «hagitz positiboa» da aurreakordioa lortu izana eta «asanbladaren parte hartu zutenen kopuru handia» nabarmendu du, «denen artean erabaki dugu». Agirreraren irudiko, «aitzineko hitzarmenetan baino puskaz haratago joatea lortu» da eta «zenbakietan lortutakoa kasik bikoitza» da. Baina onartu du «zenbait kontu zintzilik» gelditu direla, «bertzeak bertze, bulegokoen pizgarria bertzeekin berdindu gabe gelditu delako». Azaldu duenez, «kolpe bakarrean ezin dira helburu guztiak lortu».

ELAk, berriz, ez du bat egin aurreakordioarekin eta argi utzi du: «ez dugu sinatuko mobilizazio hauek sortu zituzten diskriminazioak mantentzen dituen hitzarmen bat». Horrekin batera, «gaurtik aitzinera, borrokan segituko» dutela gaineratu du, «hain injustua den diskriminazio hau ezabatzeko asmoarekin, guregana hurbiltzen diren langile guztiekin batera».

Aurreakordioan bildutako oinarriak

Soldata eguneratzea

- 2020an % 0.8
- 2021ean % 1
- 2022an KPI + % 1
- 2023an KPI + % 1

Pizgarria

Lan txandaren arabera pizgarria adostu dute. Horren arabera, lau txandakoei 2021eko urtarrilaren 1ean aplikatuko liekete igoera eta bortz txandakoei 2022ko uztailaren 1ean.

Bulegoko ordutegia

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra ordutegian malgutasuna, sartzeko (07:00-09:00) eta ateratzeko (15:05-17:05).

Gaueko plusa

Maila guztietan hiru euroko gaueko plusa izanen dute, lan egindako egunengatik, oporregatik edo enpresak hala behar duenean txandak aldatzean.

Kategoriak

Maila baxuena sei hilabeteren ondotik 11koa bihurtuko da. Gaur 10ekoa da sarrerako maila profesionala.

Herriko besten faltan hainbat kultur ekitaldi

Kantaldia, herri kirolak, bertso saioa, pilota partidak eta Txamukos taldearen emanaldia izanen dira

NEREA ALZURI
Iaz bezala, aurten ere ez da herriko bestarik izanen. Hala ere, urte sasoi honetarako kultur jarduerak antolatu ditu udalak. Abuztuan izaten dira herriko bestak eta data horiek probestuz, kultur ekimen batzuk izanen dira abuztuaren 13tik 15era.
Asteburua abiatzeko, abuztuaren 13an, Bankako Menditarren kantaldia izanen da plazan. Biharamunean, abuztuaren 14an, herri kirol saioa izanen da: emakumezkoen Nafarroako arpana txapelketaren eta gizonezkoen bigarren mailako aizkora txapelketaren kanporaketak jokatuko dira. Hitzordua, 17:00etan izanen da frontoian. Ondotik, 19:30ean plazan, bertso saioa izanen da Sebastian Lizaso, Amaia Agirre, Ekhiñe Zapiain eta Sustrai Colinarekin.
Aste hondarra borobiltzeko, abuztuaren 15ean, alde batek, pilota partidak izanen dira frontoian, eta bertzetik, ilunabarrean, 20:00etan, Txamukos taldearen emanaldia izanen da plazan.

Guraso elkarteko juntaren erdia berritu dute

NEREA ALZURI
Ekainean, guraso elkarteko juntakide berriak aukeratu zituzten. Mikel Leiza (idazkaria), Maria De Rueda (kontu eramailea), Eli Iturria (bizikidetza eta euskara batzordea) eta Rakel Arozena (jangela batzordea) sartu dira eta irailean batzordea

utziko dutenak Amaia Apao-laza, Leti Errandonea, Estitxu Iparragirre eta Natalia Goñi. Bertze urte batez segituko dutenak Idoia Etxeberria, Rosa Maiz eta Amaia Aranguren dira. Udan, ikasturte berriari begira, lanak eginen dituzte, batez ere jangela zerbitzua antolatu

Uda giroan argazki ederrak

Mikel Larretxea Bergara herriko argazkilari zaletuak irudi politak atera ditu herrian eta inguruan. Ondoko honetan, Bagatxarren dagoen gazteen txabola eta ingurua ageri dira.



Arantzako udako kultur ekitaldiak

abuztuak 13 ortziralea

18:00
Bankako menditarren kantaldia plazan.

abuztuak 14 larunbata

17:00
Herri kirol saioa frontoian. Nafarroako gizonezkoen bigarren mailako aizkora txapelketako kanporaketa eta emakumeen Nafarroako arpana txapelketako kanporaketa.

19:30
Bertso saioa plazan. Sebastian Lizaso, Amaia Agirre, Ekhiñe Zapiain eta Sustrai Colina.

abuztuak 15 igandea

17:00
Pilota partidua

Bortzirietako gaztetxoaren arteko pilota partidua.
Ekai Madariaga - Oier Orbegoza Vs Beñat Etxabide - Eukeni Etxenike

Emakumeen arteko pilota partidua:
Irantzu Etxebeste - Olatz Ruiz de Larramendi Vs Olatz Arrizabalaga - Naroa Agirre

Gizonezko afizionatuak:
Alberto Ongai - Aaron Arbizu Vs Unai Alberdi - Ion Lazkoz

20:00
Txamukosen emanaldia plazan.

Herriko Maria Jesus harategia itxi dute

Herriarrek arduradunari eskerrak eman nahi izan dizkiote bezeroei emandako zerbitzuagatik

MAIDER PETRIRENA

Bigarren asteburuan, uztaile-ren 10ean, herriko Maria Jesus harategiak atea itxi zituen. 27 urtez herritik eta herriaren-tzat lanean aritu ondotik ongi merezitako atsedena izanen dute arduradunek.



Maria Jesus harategia.

Esker onak

Lerro hauen bidez herriarrek bertakoei, ingurukoei eta bertarututako guztiei emandako zerbitzu ezin hobea eskertu nahi izan diete. Adierazi dutenez, «pena handiz» bizi izan dute itxiera, «herriak zerbitzua

galtzen du eta...». Edozein modutan, urtez urte lanean egon direnei «etapa berri bat hasteko momentuan» zorterik onena opa nahi izan diete: «gozatu!».



UTZITAKOAK

Eneit Bertiz eta Aitor Igoa Madrilen

Nafarroako Txirrindularitza Federazioak deituta, Eneit Bertiz Apezetxea eta Aitor Igoa Arretxea Madrilen izan ziren uztaileko hirugarren asteburuan. Eguraldi ederra lagun, estatuko txapelketan parte hartu zuten bi herriarrek, punta-puntako bertze hainbat txirrindularirekin batera.

SUNBILLA

ESKRIBAITA BERRI

145.000 €-TIK GOITI
(+ % 10 BEZa)

6 ETXEBIZITZA,
GARAJE PLAZA IREKIAREKIN,
TRASTELEKUAREKIN ETA
LORATEGI PRIBATUAREKIN

667 88 69 53

APEZTEGUIA ELIZALDEK PROIEKTATUA

CAJA RURAL DE NAVARRA
RURAL KUTXAK FINANTZATUA

KUDEATZAILEA
Lurgesba

SUSTATZAILEA
SUMBILLALUR S.L.

SAROBK ERAIKIA

Ikasturte hasierarako prestaketak martxan

Gaizka Baigorri izanen da atezain heldu den urtean eta aterpea ere eraikita izatea espero dute

MARGA ERDOZAIN

Mendaur eta San Miguel ikastetxeetako atezaina den Ruben Gallegok bere lanpostua utzi du eta irailetik, hau da, ikasturte berritik aitzinera Gaizka Baigorri hartuko du postu hori. Doneztebeko Udalak lan-poltsara jo behar izan du ordezkapen hori bete ahal izateko.

Ikastetxeetako

obrak eta mantentze lanak

Atezaina ez ezik, ikastetxea ere itxuraldatua dela hasiko dute ikasturtea ikasleek. Ba-

tetik, uztailen eta abuztuaren bi ikastetxe hauetan mantentze lanak egingen dituzte, pintatu, garbitu eta dena ongi uzteko.

Horrez gain, aipatu behar da Nafarroako Gobernuak onartutako dirulaguntza erabilita estalpea eraikitze lanean ere ari direla. Azpiegitura berri hori eraikitze laneak 300.000 euroko aurrekontua dute eta ikasturte hasierarako dena akitua eta prest egotea aurreikusia dute. Ea dena aurreikusi bezala ateratzen den!



ATARIA.EUS

Eki Zulaika Euskarabenturan

Eki Zulaika herritarra Euskarabentura espedizioan murgilduta dago. Uztailaren 17an abiatu zen bigarren abenturaren bigarren txanda eta bertan Lesakako Unax Ordoki eta Elizondoko Garazi Sarobe ere parte hartzen ari dira. Ea bueltan zer bizipen kontatzen dizkiguten!



MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

Erremonte txapelketa eta disc golf txapelketa

Uztailaren 30ean eta 31n Nafarroako erremonte txapelketako partidak jokatu dira Ezkurra pilotalekuan eta hilaren 31n Intzakardi parkean Doneztebeko I. Disc Golf Txapelketa: 9-14 urtekoendako (10:00) eta 15 urtetik gorakoendako (11:00). Apuntatzeko 641 58 99 08.

Abuztuaren 4tik irailaren 6ra liburutegia itxita

Abuztuaren 4tik irailaren 6ra liburutegia itxita egonen da oporrak eta formakuntzagatik. Irailaren 6tik 20ra bitarte zerbitzuak goizeko ordutegian jarraituko du, hau da, 09:00etatik 13:00etara. Maileguan dauden liburuak bueltatzeko postontzia erabil daiteke.



DFT

Javier Zabala Doneztebetik Osasunara

Doneztebeko Javier Zabala gazteak Osasunarekin jokatu du hurrengo denboraldia. Azken bi denboraldietan talde gorritxo Zabalaen atzetik aritu da eta orain Infantil B talderako fitxatu dute. Taldekideek zortetik onena opa nahi izan diote: «zorianak Javier, merezitako saria!».



ASKIN HAUR ESKOLA

Haur eskolan oporrak

Askin haur eskolako ikasleek merezitako oporrak hartu zituzten uztailaren 16an eta heldu den irailaren 6ra bitarte atsedenaldia izanen dute. Udan eskolan bertan mantentze eta txukuntze lanak egingen dituzte, ondoko ikasturterako dena prest eta attoko-attoko uzteko.

BERTIZARANA/MALERREKA

Frontenis txapelketa jokatzeko ari dira Narbarten

Finalak abuztuko lehenbiziko asteburuan jokatzeko aurreikusitako da

TTIPI-TTAPA

Narbarteko gazteek antolatuta, haur eta helduak frontenis txapelketak jokatzeko ari dira herrian. Helduen artean guztira 16 partaide daude, zortzi bikote (zazpi neska eta bederatzi mutil). Zozketa bidez egin zituzten bikoteak eta uztail hasieran hasi ziren partidak jokatzeko. Tarte librean jokatzeko dituzte partidak eta denek denek kontra jokatu ondoren eginen dituzte finalak. Oraindik ez dute zehaztu noiz izanen diren final horiek.



Gaztetxoak ere bai

Helduak ez ezik, gaztetxoak ere euren txapelketa jokatzeko ari dira. Parte-hartzaileei esker, plaza inguruan herri giro polita dago azkenaldian. Ea txapelketaren ondoren horri eusten zaion!



Abuztu bukaerarako 18 urtetik goitikoak txertatuak izatea espero da. UTZITAKOA

18-29 urte bitartekoak txertaketarako hitzordua har dezakete

M. ERDOZAIN

Malerreka, Bertizarana, Bortzirak eta Baztan eskualdetako txertaketa handiak Donezteben izanen dira abuztuan. 18-29 urte bitarteko gazteek ordua eskatu behar dute eta uztailen kutsatu baldin badira ordu hori bertan behera utzi behar izanen dute.

Uztailen zehar hainbertze kutsatu direnez, hitzordu horiek berrantolatzen lanean ari dira. Abuztuan 4an, 12an, 17an eta 25ean dituzte hitzorduak. Dena ongi joanez gero, abuztuaren bukaerarako eskualdeko 18 urtetik goitiko biztanle guztiak txertatuak izatea espero dute.

Turista andana dabil uda honetan ere eskualde osoan

Uda honetan ere aunitz izan dira familia-turismoaz gozatzeko, inguru eta iturburu naturalak ikusteko, mendi bueltak egiteko... Malerreka-bera bertaratzen direnak. Eredu publikoetan, frontoian, merenderoetan... jendea eta mugimendua ikusten da.

Ezkurrako festetan ez dute aparteko ekitaldirik izanen

«Egoera dagoen bezala egonda», Ezkurrako festetan aparteko ekitaldirik ez dutela izanen jakinarazi du udalak. Abuztuaren 15ean patroien meza eta txistulariak izanen dira, «ez besterik». Horrekin batera zuhurtziaz jokatzeko deia luzatu dute.



ARGAZKIA ETA TESTUA: JAIONE ZABALO

Kolunbarioak Ezkurran

Uztailaren 10ean kolunbarioen inaugurazioa egin zuten Ezkurran eta Alfonso Garcia apaizak kolunbarioak bedetatu zituen. Hildakoen errautsak gordetzeko erabiliko dute elizatik goiti dagoen kolunbarioa, 18 horma-hobi dituen. Zenbait etxek kolunbarioa erreserbatu dute baina oraindik udalean eska daitezke.

Oinarritzko gaitasun digitalak ikastaroa izanen da urrian Zubietan

TTIPI-TTAPA

Nafar Lansarek antolatuta, oinarritzko gaitasun digitalak lantzeko ikastaroa izanen da urriaren 18tik 22ra, astelehenetik ostiralera, Zubietan. Udaletxean bilduko dira 09:00etatik 14:00etara eta izena ematea udala@zubieta.eus helbidera idatziz edo www.navarra.es atariaren bidez egin ahal izanen da.

Iraupena, helburua eta edukia

Guztira 25 orduko ikastaroa izanen da eta aurrez aurre

eskainiko dute. Parte-hartzaileek informazioa prozesatzen, oinarritzko aplikazioak erabiltzen, Internetek eskaintzen dituen world wide web, korreo elektronikoa, eztabaida foruak edota hitzaldiak... baliatzen ikasiko dute.

Ikastaroak bi atal izanen ditu: informatikaren hasierako pausoak emanen dira (15 ordu) eta Interneteko protokoloak, zerbitzuak eta aplikazioak izanen dituzte aztergai (10 ordu). Alderdi teoriko eta praktikoa landuko dituzte.

Udalak eta gazteek antolatutako ekitaldiak gibelatuak

Egoera hobetu eta eguna adosten dutenean jakinaraziko dutela adierazi dute

TTIPI-TTAPA

Uztaileko ez bestetarako as-
teburuan seinalea egiteko,
ekitaldi xume batzuk antola-
tuak zituen udalak. Zehazki,
hilaren 18an, igandean, hau-
rrentzako ginkana, bazkaria,
ipuin-kontalaria eta Trikidantz
taldearen kontzertua izatekoak
zituzten.

Pandemiak eragindako egoe-
ra tarteko, eta inguruko po-
sitibo kopurua ikusita, ekital-
di horiek gibelatzea erabaki
zuen udalak. Lerro hauek
idazterako orduan eguna
zehaztu gabe zuten eta «egoe-
ra hobetzeko zain» zeuden
finkatzeko.

Bertso bazkaririk ere ez

Bertzalde, herriko gazteek
bertso bazkaria prest zuten
bezperarako, uztailearen 17rako
eta hori ere ez egitea erabaki



Bazkaria aitzinerago egingen dute.

zuten. Aitor Mendiluze, Eñaut
Agirre eta Unai Agirrek giro-
tzekoa zuten ekitaldiari da-
gokionez, oraindik ez dute
datarik. Gazteak elkartu, bi-
lera egin eta adosten dutenean
jakinaraziko dute eguna.



Ines Bengoaren eskutik gozatuko dute ipuin-kontaketaz. UTZITAKOA

Ipuin-kontalaria izanen dute abuztuaren 8an herrian

N. REKARTE

Udalak antolatuta, hainbat
ekitaldi prest dituzte uztail
bukaera eta abuzturako Do-
namarian.

Hilaren 31n, heldu den la-
runbatean, Ados pilota klubak
antolatutako Plazaz plaza
txapelketako finalaurrekoak
izanen dituzte eta orduan
erabakiko dira abuztuaren
14an Leitzan jokatu den
final haundira sailkatutakoak.
Lehenbiziko partida 16:00etan
hasiko dira. Ondotik, iluna-
barrean 19:00etan, Trikidantz
taldearen emanaldia izanen
dute.

Hurrengo igandean, abuz-
tuaren 8an, berriz, ipuin-kon-
talaria izanen da. Ines Bengoaren eskutik, en-
tzuleak ipuin kontaketa
murgilduko dira. Plazan dute
hitzordua. Lerro hauek idaz-
terako orduan ordua zehaz-
tekoa zuten.

Neurriak

Ekitaldietan koronabirusaren
aitzinean osasun agintariak
zehaztutako neurriak kontuan
hartuko dituzte eta, modu
berean, horiek betetzea es-
katuko zaio bertaratzeko den
ikusle orori.

**HEMENGOAK GARA,
ZUREKIN GAUDE.**

ABIADURA BIZIAN NABIGATU
GURE INTERNET ZERBITZUAREKIN

ESKATU INFORMAZIO GEHIO:

948 030 500

%50
DESKONTUA ALTA
BERRIENTZAKO.
DEITU ORAIN!

**BAITA ZURE
BASERRIAN ERE!**

Nafarroan komunikazio sarrerik handiena eraikitzen ari gara, konexiorik onena zure etxeraino edo enpresaraino eramateko. Iruñean gaude, eta laguntza tekniko eskaintzen dugu urteko egun guztietan goizeko 8:00etatik gaueko 10:00ak arte.

| info@wikai.es | 948 030 500 | www.wikai.es



Peron kontserbez osatutako sorta zozketatzen dute hilabetero.

Urte erdia darama martxan elkartearen lehiaketak

Elkarteko bazkideei parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi izan diete

P. IRASTORTZA

Sei hilabete daramatza martxan parte-hartzaile finak eta gogotsuak dituen sariketak. Elkarteko bazkideak Whatsapp bidez hilabeteroko galderak erantzuten ari dira eta urtarrian abiatutako jolasa sendotzen ari da dagoeneko.

Lehiaketaren nondik norakoak

Lehiaketari esker, bazkideekin harremanak, eskualdearen ezagutza, nabarmendu diren pertsonen buruzko datuak... zabaltzen ari dira. Galdera gehienak Nafarroa iparraldeko inguruari dagozkio eta kultura, kirola, geografia, musika eta bertzelako bitxikeriei buruzkoak dira. Lehenbiziko sei hilabeteetan 142 mezu zuzen izan dira jaso dituztenak eta galderaren konplexutasunaren arabera

erantzun kopuru zuzenak gorabeherak izaten ditu. Apirilekoa izan zen errazena, 31 erantzun zuzen izan zituen eta ekainekoa zailena, hamabik baino ez baitzuten asmatu. Horrekin batera, aipagarria da 142 mezuetatik 100 emakumezkoek bidali dituztela eta 42 gizonezkoek. Ea datuak ikusi ondotik horrek buelta ematen duen!

Azkenik, aipatu behar da Lodosako Peron kontserbez osatutako sorta dela asmatzaileen artean zozketatzen dutena eta orain artean bortz herri izan dira kukuak jo dien herriak: Igantzi, Erratzu, Iru-rita, Arantza eta Leitza (bi aldiz). Lerro hauen bidez, Arkupeakeko bazkideei parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi izan diete: «hurrengoan zu izan zaitezke saritua!».

Abuztuko galdera

Zein da Zugarramurdiko herriari ospe edo fama handiena ematen dion film edo pelikularen izenburua? Bidali erantzuna Whatsapp bidez elkarteko 618 56 78 37 telefono zenbakira.



Masajeak emateko eta podologia zerbitzurko erabiltzen dute momentuz. UTZITAKOA

Gela berria egin dute elkarteak Donezteben duen egoitzan

P. IRASTORTZA

Maiatzaren 17an batzordeak hartutako erabakiari jarraiki, Doneztebeko egoitzako gela berria prestatu dute dagoeneko. Nahiz eta gaur egun masajeak emateko eta podologiarako erabili, baliagarritasun anitzetarako atondua dagoen hamaika metro ka-

rratuko gela egokitu dute. Aurrefabrikatutako taulekin, eta kristalez osatua dagoen muntaia Peraltako Dynanobel enpresak egin du eta 4.550 euroko balioa izan du. Hagitz eroso eta txukuna gelditu da, eta ziur etorkizunean hainbat jardueratarako aprobetxatuko dutela.

Gobernuaren dirulaguntza jaso du elkarteak

P. IRASTORTZA

Uztailen Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialen Sailak 46.568,80 euroko dirulaguntza eman dio Arkupeak elkarteari. Dirulaguntza hori ezinbestekoa izanen da elkar-tearentzat urtean zehar antolatzen dituen hitzaldi, ikasta-

ro, oporraldi, irteera, mendi buelta, omenaldi, txapelketa... aitzinera atera ahal izateko eta aspaldi gainbeheran den osasun egoera hau lehenbailehen hobetzeko. Ea azken aldiko berri tristeak bertzelako norabidea hartzen hasten diren!

Udazkenerako ekintzak antolatzen ari dira

P. IRASTORTZA

Denok desiragarri ditugun normaltasun ametsi tiraka, elkarteko batzordea, herriz herriko ordezkariak, administrazioa eta esku bat botatzen ari diren gainerakoek laguntzaz, heldu den udazkenean egingen diren hainbat ekintza

prestatzen ari dira buru-belarri elkartearen. Bazkideei oroitarazi dietenez, ekitaldiez gozatu nahi badute «erne egotea» komeni da, «uda honetan banatuko den buletin agertutako baitira afera guzti-guztiei buruzko xehetasunak».


Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Denda ttikiok elkarri lagundu behar diogu»

NATALIA REKARTE OTEIZA
KUKUKA - DONEZTEBE

Duela 12 urte ireki zuen Rekar-tek Kukuka arropa-denda Donezteben. Haurrak beztitzeko behar den guztia daukate, «aukera zabalarekin kalitate eta prezio aldetik, baina minimo bat gordez. Garbi dugu ez dugula produktu txarrik saldu nahi eta are gutxiago egoera txarrean ekoiztutakoak». Bertako produktuak saltzen saiatzen dira, «baina garestiagoa da eta zaila da. Kontzientziazioa behar dugu». Hala ere, bezeroekin kontent dago Rekarte, «jende aunitzek erraten digu: 'hau poza! Hirugarren iloba dugu arropa berarekin eta ongi dago...' hori da guk bilatzen duguna, kalitatezko arropa iraunkorra». Internet bidez erostearen ondorioak argi ditu; «jendea lau sosengatik lanean ari da nahi duguna iganderako etxean edukitzeko». Elkarlana da gakoa «denda ttikiak gara, ez dugu baliabiderik, elkarri lagundu behar diogu».



«Jendea gero eta kontzientziatuagoa dago ekologiarekin»

IRUNE ALGORTA RODRIGUEZ
GARBI LURRINDEGIA - LEITZA

Pasa den urtean 50 urte bete zituen Leitzako Garbi lurrindegiak. Iruñe Algortaren ama eta izebak ireki zuten eta duela bederatzi urte hartu zuen berak. «Drogeria bat izaten segitzen du, baina aldaketa batzuk egin ditut bezeroari arreta hobe emateko». Produktuen eskaintza zabala dauka; garbiketarako gaiak, pinturak, etxeko tresneria, perfumeria, kosmetika, osagarriak... «hainbat sekzio dituen drogeria bat da. Udan asko saltzen ditugu etxeko garbiketareko produktuak eta pintura. Eguberri aldera gehiago osagarriak eta perfumak». Ekologiaren aldeko apustua egin du Algortak; «pintura biojasagarriak, garbikari ekologikoak... Jendea gero eta kontzientziatuagoa dago eta produktu onak dira». Audrey Hepburn dute Garbin erreferente; «emakume xumea baina elegantea zen, langilea eta pertsona ona, eredu guretzako».



«Herrietan denetik saldu behar da negozioa egiteko»

JUAN LUIS PEREZ FRANZENENA
NAFARPRESS - ELIZONDO

1983an ireki zuten Nafarpress liburu-denda. Juan Luis Pérez urte bat beranduago hasi zen lanean eta 1994an denda hartu zuen, «betitik egon naiz hemen». Hainbat produktu ditu: egunkariak, aldizkariak, eskolako eta bulegoko materialak, haurrentzako jokoak... «Herri batean denetik saldu behar da negozioa egiteko». Baina liburuak dira nagusi, eta bi izenburu nabarmentzen dira; Mariano Izetaren *Baztango Hiztegia* eta Dolores Redondoren *Zaindari ikusezina*. «Izetaren liburua da ziurrenik gehien saldu dugun liburua, baina dudarik gabe, Redondo da gehien saldu dugun idazlea». Liburuak «hainbat ediziotan eta zazpi hizkuntzatan» saldu dituzte, baita komikiak, DVDak eta lotutako produktuak ere, «guztira 3.000 ale inguru».



«Bortzirietako jendeak mantentzen gaitu bizirik»

MARI JOSE ARA IGLESIAS
ARTURO - BERA

2000. urtean hartu zuen denda Mari Jose Arak amaren eskutik. 1945etik dago Arturo arropa-denda Beran, «lehen oihaldendazen, eta bitxiak eta oroigarriak ere saltzen zituzten». Orain saltokiak lau sekzio ditu: emakumezkoen arropa, gizonezkoen, etxeko osagarriak eta barneko arropa. «Produktuen aniztasunagatik segitzen dugu aitzinera». Arropan ere eskaintza zabala dute, «barietate handia ekartzen dut baina kopuru murriztean. Gainera, produktuen gehiengo estatuko da eta hagitz harro nago». Pandemia «gogorra» izan da modaren sektorearentzako, baina «Bortzirietako jendeak mantentze gaitu bizirik. Eskualde mailan pentsatu eta bortz herriak elkarrekin egon behar dugu. Garaiak aldatzen ari dira eta haiekin batera aldatu behar dugu».



«Festetan ez dugu ekitaldirik antolatu edo babestuko»

Abuztuaren 7tik 15era bitarte ekitaldirik ez antolatzea erabaki du festa batzordeak

TTIPI-TTAPA

Jantzi zuriek, blusa beltzak eta zapiak beste urtebetez gorderik egon beharko dute armairuan. Aurten ere ez da santiburtziorik izanen. Festa batzordeak ez du ekitaldirik antolatuko eta haratago joan dira, festak behar luketen garaietan herrian antolatu litezkeen ekitaldiak ez babestea ere erabaki dute. Oharra kaleratu dute eta bertan azaldu dute inguruko herrietan azken asteotan gertatu dena ikusita, eta herrian bertan positibo kopurua goraka doala kontuan hartuta hartu dutela erabakia: «abuztuaren 7tik 15era ez dugula ekitaldirik antolatuko ezta babestuko ere».

Festa batzordeko kide diren Leitzako Udalak, Aurrera Elkartek, ALKE Leitzako kultur taldeak, Denok bat eta Amazabal guraso elkarteak kideek sinatu dute oharra. Erabakia argudiatzeko diote egungo egoera epidemiologikoak ez duela beste aukerarik ematen eta arriskuei aurre hartzearen alde egin dutela: «denontzako data bereziak diren horie-

tan, uste dugu jende pilaketak ekiditen jarraitzea garrantzitsua dela».

Kontzertua uztailaren 31n

Gainerako datetan antolatutako udako kultur agendaz segurtasunez gozatzeko gonbita ere egin dute eta eskaera argia egin: «denok dugun ardura pertsonala zein kolektiboa ez ahazteko eskatzen dizuegu».

Uztailaren 31n, 22:00etatik aurrera Modus Operandi taldearen kontzertua antolatua dute. Dena den, unean-uneke egoera epidemiologikoaren eta testuinguruaren menpe egonen da ekitaldi hauek aurrera eraman ahal izatea edo ez.

Txosna eta Torreak ekitaldiak


Txosna batzordeak eta Torrea Elkartek beren aldetik ekitaldiak antolatzeko asmoa dutela azaldu diete TTIPI-TTAPARI. Hau idazterako orduan ez zuten egitaraua guztiz itxita. Informazioa eskuratu ahalaz *ERRAN.EUSEN* argitaratuko dugu.

Flamenko doinuak izanen dituzte uztailaren 30ean Torrea atarian

Torrea Eszenaren baitan, uztailako azkeneko ekitaldia egingen dute ostiralean, hilak 30. La Pulga eta lagunak igoko dira oholtzara eta flamenko doinuez gozatzeko aukera izanen dute ikusleek 19:00etatik aurrera. Sarrera bost euro ordaindu beharko da.



Zuzeneko bizia du taldeak.



ARTXIBOA

Estalpearen obran atzerapenak

Abuztuaren lanak hasia espero zuten arren, badirudi obra hasiera ikasturte hasierarekin batera izanen dela. Nafarroako Gobernua urtarrian hasi zen proiektuarekin baina oraindik ez dute esleipenera atera. Pena da prozedura arinago ez joan izanagatik lanak egiteko uda ez aprobetxatu izana.



J. SAGASTIBELTZA

Atekabeltzek hamasei urte bete ditu

Atekabeltz gaztetxeak hamaseigarren urteurrena bete du eta *Atekak hamasei, sardina bakalau* lelopean laburbildu dute urte kaotiko samar hau. Uztailaren 20an eta 24an egitekoak zituzten ospakizunak. Afariarekin hasi eta brindisa, frontenisa, poteoa, argazkia, musika... urte askotarako!

Irailean egingen dituzte kultur teknikaria hautatzeko azterketa eta probak

TTIPI-TTAPA

Uztail hasieran kultur teknikaria hautatzeko deialdia argitaratu zuen udalak. Uztailaren 15era arte izan dute interesa dutenek izena emateko aukera eta hamar lagun aurkeztu dira. Azterketa eta hautaprobak irailan izanen direla jakinarazi

dute. Hartara, udazkenean Leitzak kultur teknikaria izatea espero du udalak. Kultur teknikariaren egiteko nagusiak Leitzako Herri Aretoko programazioa antolatzea eta dirulaguntzak kudeatzea izanen dira baita herriko eragileekin sare lana egitea ere.

Bosgarren postua lortu dute aresoarrek Organi-Kopan

Hiri hondakinen errefuxa aztertu dute eta bertan gai organiko gutxien duen herriak irabazi du

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Mendialdean Organi-Kopa izeneko lehiaketa egin dute maiatzetik uztailera arte. Mendialdea Mankomunitatea bere baitan hartzen duten udal eta kontzeju guztiek parte hartu dute (Larraun-Lekunberrik, Leitzak, Goizuetak, Aranok eta Aresok) eta bosgarren postua lortu dute aresoarrek. 500 euroko saria irabazi dute hiri altzariak eta itxiturak erosteko.

Hondakin organiko gehien konpostatu duten herriak hauek izan dira hurrenez hurren:

Errazkin, Astitz, Gorriti, Etxarri eta Areso.

Mendialdeko herri bakoitzean nola egiten den konprobatzeko, hiri hondakinen errefuxa aztertu dute eta bertan gai organiko gutxien duen herriak lehiaketa irabazi du. Zenbat eta materia gutxiago errefuxan, orduan eta gehiago konpostatzen den seinale.

Denera, 5.000 euroko diru sariak banatu dituzte: 1.500 euro irabazleak, 1.200 bigarrenak, 1.000 euro hirugarren sailkatuak, 800 euro laugarrenak eta 500 euro bosgarrenak.

Eskalada jardunaldiak antolatu ditu abuzturako Kirol Mankomunitateak

TTIPI-TTAPA

Baraibarko bulderrean eskalada jardunaldiak eginen dituzte abuztuaren 21ean eta 22an. Hiru orduko saioak izanen dira 10:00etatik 13:00etara. Sei pertsonako taldeak osatuko dituzte eta pertsonako 46 euro ordaindu beharko dira. Interesa

dutenek abuztuaren 15era arteko epea izanen dute izena emateko; kirolmakunitatea@gmail.com helbidera idatzi eta beraien datuak bidaliz. Abuztuaren 16tik 20ra Kirol Mankomunitateko kontu etako batera transferentzia bidez egin beharko dute ordainketa.

Irati filmean parte hartzeko castinga

Paul Urkijoren Irati filmerako Nafarroako haur euskaldunen bila dabil. Zazpi eta hamar urteko neska-mutikoak eta hamabi eta hamalau urte arteko mutikoak bilatu nahi dituzte. Interesa dutenek txabeyflorcasting@gmail.com helbidera idatz dezakete.



E. IRAOLA

Gaztetxoak udalekuetan

Uztailaren 12an hasi eta abuztuaren 6ra arte udalekuetan ongi pasatzeko aukera izanen dute gaztetxoak. Eskulanak eta txangoak egin, taldean jolasean aritu... Hamabost haurrek emana zuten izena baina inguruan izan diren koronabirus kasuak tarteko, talde txikiagoa bildu da azkenean.



UTZITAKOA

Plazaz plaza txapelketako partidak

Uztailaren 11n pilota partida ederrak ikusteko aukera izan zen plazan, Plazaz plaza txapelketaren harira. Hasteko bailarako neska pilotarien partidak izan ziren, tartean Erika herritarra aritu zelarik. Agirrek eta Aldaik, Infante eta Ruiz de Larramendiri irabazi zieten partida nagusian.

Komunaletan ahuntzak izatea debekatua dagoela gogorarazi du udalak

TTIPI-TTAPA

Aresoko baso komunalean hainbat ahuntz aske dabilzala ikusita, ahuntz horien jabeek animaliak bertatik kentzeko errekrimendua egin die udalak. Bando bidez zabaldu du udalak oharra eta argitu du abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legeak

ahuntzak basoetan ibiltzea debekatzen duela. Guztionak diren bitartekoak norbanakoen onurarako ezin daitezkeela nahi bezala erabili argi uzten du arauak. Arretaz begiratuko dute neurriak betetzen direla eta hala ez bada dagozkien neurriak hartuko dituzte.

Uda honetan hainbat lan burutuko dituzte herrian

Mendiko askak konpondu, mediku kontsulta eraberritu, Tifanitxon ate berriak jarri, udaletxean galdara aldatu...

TTIPI-TTAPA

Uda atseden hartzeko erabiltzen dute batzuek eta lanera-ko baliatu besteek. Herrian ez daude geldirik eta hainbat hobekuntza egiten dituzte.

Hilerriko kolunbarioak

Gero eta jende gehiagok erabakitzen du hildako senitartekoak erraustea eta kolunbarioak eskas gelditzen ari zirela ikusita, udalak 32 zulo edo kolunbario berri jarri ditu. Bertan senitarteko bat baino gehiago sartzeko aukera egon da. Lanak Hargoi enpresak egin ditu eta 9.035,45 euroko aurrekontua izan dute.

Mendiko askak

Aitasemegi, Tartazu eta Alkasoldea auzoetan aziendek ura edateko lau aska berri jarriko dituzte eta bat konpondu. Bertako abeltzainekin adostu da aska hauen koka-pena. Berriak Domiñako borda, Mandoegi, Altzanburu eta Altzako txokoan jarriko dituzte eta Biorsozoko aska da konponduko dutena.

Lanak 18.739,70 euroko aurrekontua izanen dute, haue-tatik zati bat abeltzaintzako azpiegiturak hobetzeko dirulaguntzarekin ordainduko dute.

Mediku kontsulta

Herriko mediku kontsultan eraberritze lanak egiten dituzte. Horrela, larrialdiak artatzeko gune berri bat izanen du gaur egungo kontsultak.

Lanak mediku kontsultako langileekin adostu dituzte eta Goizuetako eraikuntzak enpresak burutuko ditu azarara baino lehen. 49.392,56 euro-



Udaletxeko galdara aldatuko dute

ko aurrekontua dute eta % 100 Osasunbideak ordainduko du.

Bestalde, Nafarroako Gobernuko Covid19aren ondoren ekonomia sustatzeko udalei emandako dirulaguntzak ere baliatuko dituzte hainbat lan egiteko. Dagoeneko Tifanitxo eraikineko ate berriak jartzeko erabili da dirulaguntza eta udaletxeko galdara berria jarriko dute. Gasoliozko galdara zaharra aldatuko dute eta, energetikoki efizienteagoa izanen den galdara berri bat jarriko dute udal eraikina berotzeko. Lanak abuztuaren egiten ditu Urdiñola enpresak. 6.183,10 euroko kostua izanen du galdara berritzeak.

NAFARROAKO GOBERNUKO COVID DIRULAGUNTZAK ERABILIKO DITUZTE



Atzelari goizuetarrak seme-alabekin kontent jaso zituen txapela eta garaikurra.

Zubiri txapeldun San Fermin erremonte txapelketan

TTIPI-TTAPA

San Fermin erremonte txapelketako finalak jokatu zituzten uztailaren 14an Hernaniko Galarreta pilotalekuan eta, partida bikaina jokatu, txapela etxeratu zuen Aritz Zubiri herritarrak.

Loitegirekin bikote osatuta, Oskar Urrutia eta Martirena izan zituzten aurkari. Bikotearen zama bere gain hartu zuen Zubirik eta maisuki aritu zen. Loitegik bosgarren partida zuen profesioaletan, final bat gainera, eta lotua ibili zen partida osoan. Halere, beti aitzinetik izan zen bikote ur-

dina, alde politarekin, gehienetan. Halere, hogeigarren tanto aldera tanto bakarrera hurbildu zen pare bat aldiz bikote gorria, Oskar Urrutia saldiastarrak egindako lanari eta tantoei esker batez ere. Baina berdinketa eskura zutenean, Martirenak huts egin eta ez zuten inoiz berdintzerik lortu. Azkeneko hamar tantoetan erakustaldia eman zuen Zubirik, defentsan sendo beti bezala, baina baita erasoan ere. Azkenean, 30-21 irabazi zuten Loitegik eta Zubirik. Egindakoarekin gustura agertu zen bukaera goizuetarra.

Covid kasuen gorakada izan da azken asteetan

Azken asteetan Covid-19 kasuek gorakada nabarmena izan dute herrian. Urte eta erdian hamar kasu soilik izan baziren ere, azken bi asteetan dozena bat kasu positibo ateratu dira, eta ondorioz herritar asko konfinatuta egon behar izan dira. Honek eragina izan du udako kultur agendan, eta uztailaren 10eko Umora Ona dantza taldearen emanaldia eta Karmen bezperako herri afaria bertan behera gelditu ziren. Uztailaren 17ko ur-txirrista berri, aste-bete atzeratu eta uztailaren 24an egitekoa zuten.

Tio Teronen semeak ariko dira abuztuaren 1ean

Abuztuari hasiera emateko, Tio Teronen semeak taldeak emanaldia eskainiko du 12:00etatik aurrera plazan. Euskal dantza tradizionala eta umorea uztartzen dituen ikuskizun dibertigarriaz gozatzeko aukera izanen dute ikusleek.



Demetria Perurenaren moja biziari omenaldia

Abenduaren 8an mende erdia beteko du moja ibilbidea hasi zuela eta uztailaren 11n ospakizuna egin zuten familiakoak elkartuz



Demetria Perurena Loyarte eta familiako kideak. UTZITAKOA

AINHOA ANSA

Uztailaren 11n Demetria Perurena Loiarteren moja bizitza omendu nahi izan zuten bere familiakoek eta herriko gainerako lagunek. Aurren, abenduaren 8an beteko ditu 50 urte ibilbide hori hasi zuela.

Mende erdiz moja

Nobiziatua Guadalajaran egin zuen eta bertan egin zituen lehenengo botoak. Logroño-ra destinatua izan zen eta han boto 'perpetuoak' egin ondoren, Argentinara abiatu zen. 33 urte pasa zituen bertako herriak eta jendea ezagutuz. Handik itzuli zenean Bilbon, beriz Guadalajaran, Logroñon eta azkenik Santanderren bizi izan da eta azken honetan bizi da gaur egun.

Bere bisita aprobetxatuz, ospakizuna egin zuten familia elkartuz eta meza batekin ospatu zuten. Urte askotarako Demetria eta ongi etorri gozoena berriz ere nahi du zunean zure herrira.

Festetan ez da ekitaldi ofizialik izan

Festarik izanen ez zela hasieratik argi bazuten ere, ekitaldiaren bat antolatu edo ez, zalan-tza izan zuten udal taldeko kideek azken momentura arte. Jendeari elkartzeko aitzakiarik ez ematea erabaki zuten azkenean eta ez zuten ekitaldi ofizialik antolatu.

DESKONTUAK LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

%5 DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan Uhartre Gotzaina, 1-behe 4 LEITZA T. 948 51 36 20	%10 DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan Landa Behekoa LEITZA T. 948 51 04 37
%10 DESKONTUA eskeletan eta oroigarrietan Koskontako bidea, 7-1 LESAKA T. 948 63 54 58 bagoaz@ttipi.eus	%3 DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55
%5 DESKONTUA kosmetikan %10 DESKONTUA opari 50€-tik goiti Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73	%10 DESKONTUA koltxo, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08
%5 DESKONTUA bainugelako osagarrietan Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86	%5 DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76
%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46	%5 DESKONTUA 25€tik goitiko erosketetan Elbarren, 17 LEITZA T. 948 61 09 74
%5 DESKONTUA gozotegian 30€tik goitiko erosketetan Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20	%5 DESKONTUA erosketa guztietan Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48
%10 DESKONTUA hamar saloko bonoetan Uhartre Gotzaina, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30	%5 DESKONTUA 30€tik goitiko tratamendu eta kosmetikan Uhartre Gotzaina, 4 behe LEITZA T. 638 30 61 10
%5 DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan Elbarren, 66 LEITZA T. 948 51 36 11	DESKONTUA Bazkide egiteko sarrera doan urte bateko iraunkortasunarekin Amazabal Kalea, 39 LEITZA T. 948 51 07 19



Parte-hartzaile batzuk. UTZITAKOA

Udako eskola ekosoziala izan dute uztailen

TTIPI-TTAPA

Arazo ekosozialei buruz eta dauden alternatiben inguruan mintzatzeko, udako eskola ekosoziala egin zuten Baztanen uztailaren 10ean eta 11n. Antolatzaileen erranetan, oraingo aldia hobeki ulertzeko «azterketa-saio sakonak» egin eta «horren arabera, alternatibak zirrimarratu» dituzte.

Alternatiben beharra

Oraingo aldi historikoaren ezaugarrietako bat «energia eta materia gutiagoko zibilizazio aldia izan dela» ondorioztatu zuten ikastaroan, eta horrek, «nahasmendu handiak ekarriko dituela, aukera totalitario eta ekofaxistetarako bidea emanez». Horren aitzinean «bidezkoak izanen diren alternatibek bizimodu soil edo xeheak

bultzatu beharko dituzte eta aberastasunaren birbanaketa handia ere bai» diote antolatzaileek, «betiere, herrialde bakoitzak duen aztarna ekologikoa kontuan hartuz».

Gaurgero, klima-aldaketa saihestezina dela aipatu zuten, biodibertsitate galera handia gertatzen ari dela eta gizarte industrialaren oinarrian diren erregai-fosilen eta mineralen eskasia gertatzen ari dela, eta horrek denak, krisi sozial eta ekonomiko handiak ekarriko dituela. Egoera horretan, «itxaropena atxekitzeko tokiko alternatiba kolektibo ttiekien duten garrantzia» aipatu zuten, «oinarrizko segurtasun material eta bitala bermatzeko». Testuinguru horretan, «dinamika eta egitasmo kolektiboen bitartez bizipoza atxikitzea funtsezkoa dela» erran zuten.



BAZTANDARRA TXIRRINDULARI ELKARTEA

Txirrindulariak Nafarroako selekzioarekin

Baztandarra Txirrindularitza Elkarteko Unax Eraso eta Ivan Villoria iruritarrek eta Eneit Bertiz sunbildarrak Nafarroako selekzioarekin estatuko BTT txapelketako kadete kategorian parte hartu zuten Madrilgo Villa de Prado herrian. Argazkian Orisoaingo Saul Lergarekin ageri dira. Zorionak!



UTZITAKOA

Marijo Maiora punta-puntan

Marijo Maiora baztandarrak Indurain martxa zikloturistan parte hartu du. Artesiagako kronoen artean Josep Arnau eta biek izan ziren azkarrenak, 34:39 eta 48:43 behar izan zituzten, hurrenez hurren. Markarik onena egiteagatik, zeramikaz egindako detaile bat jaso zuten saritzat.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:

- etxeak
- landetxeak
- lokalak
- komertzioak
- enpresak

konfiantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304
---	---	---



Plana aurkeztu eta iritziak biltzen hasiak dira. UTZITAKOIA

'Baztan Hobetzen' plana garatzeko iritziak biltzen

Informazio guztia baztanhobetzen.baztan.eus atarian zintzilikatu dute

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, Paisaje Transversal aholkulari-taldearekin, herriguneak berrorenatzeko Hiri Jarduketarako Plan Berezia (HJPB) martxan paratu du. Planaren helburua herriguneak hobetzea da, hainbat alorretan: etxebizitza, denda, espazio publiko eta berdeguneak, zerbitzuak eta azpiegiturak, mugikortasun jasangarria, gizarte-, ingurumen- eta ondare- alderdiak. Horrez gain, «birgaitzea sustatzeko, hutsik dauden etxebizitzak ez ugaritzeko eta etxebizitza eskuratzeko estrategiak» bilatuko dituzte, «baita lurzorua artifizializazioa eta hiri-hedapena geldiarazteko ere» eta, modu berean, «ondarea, paisaia eta ingurune naturala zaintzeko mekanismoak» planteatuko dituzte.

Prozesua

Prozesua lau fasetan garatuko da. Lehenbizi, analisia eta informazioa emanen da. Egun-egoera aztertu, hirigintza determinazioen analisia egin eta parte hartze prozesuan

murgilduko dira. Gero, diagnostikoa eta aurreproiektuaren garaia izanen da: diagnostiko integrala egin, parte hartze prozesua zehaztu eta aurreproiektua eta antolamendu alternatibak zehaztuko dira. Hirugarren pausoa Hiri Jarduketarako Plan Berezia dokumentua garatuko da. Eta, azkenik, HJPBaren izapidetze eta onespina izanen da eta bertan alegazio txostena eta behin-betiko dokumentua bilduko dira.

Herritarren parte-hartzea

Baztango herritar eta eragileen ekarpenak sartzeko, aurkezpen publikoak, elkarrizketak, galdetegiak, mapaketa kolektiboak, parte hartzeko tailerrak... izanen dira. Galdetegia baztanhobetzen.baztan.eus atarian bete daiteke eta informazioa hasi bagu dutenek baztanhobetzen@baztan.eus helbidera idatz dezakete. Gainera, prozesuari, aurkezpenetan erabilitako dokumentazioari edota albisteei buruzko atalak ere webgunean zintzilikatu dituzte, nahi dutenen eskura.



Uztailaren 13an elkartu ziren Campuseko elizaren erabilerari buruz aritzeko.

Lekarozko Campuseko eliza ekintzailtza digitalerako zentro bihurtuko dute

TTIPI-TTAPA

Ekonomia eta Enpresa Garaipeneko kontseilariak, Mikel Irujok, ekintzailtza digitaleko gunea sortzeko inbertsioa aurkeztu du. 1,2 milioi euroko finantzaketa izanen du, Europar Batasuneko Next Generation funtsak finantzatua. Kontseilariak adierazi zuenez, «eskualdean ekintzailtza sustatzeko eta enpresa-mailako lankidetzak irekirako gunea jarri nahi dute, hasierako garapen-fasean aurkitzen diren enpresak instalatu ahal izateko, start-up berritzaileak sortzea errazten duten sinergiak sortu

ahal izateko eta lankidetzak ingurunean lanpostuak eskaintzeko». Funtzio anitzeko eta coworkingerako espazioa izanen da, ekintzaileei eta Campusean kokatutako enpresei laguntzeko, ezagutza-arlo ezberdinetan prestakuntza eta dibulgazio-jarduerak programatzeko. Murgiltze-egonaldiak eta tailerrak ere eskainiko dituzte, sormena eta sinergien sorrera sustatzeko. Espazioa manpara gardenekin banatuko dute, erdiko nabea erabat garbi utziz. Inguruko gelak bulegoak, biltegia, espazio akademikoa... izanen dira.



BAZTAN IKASTOLA

Baztan Ikastolan auzolanean

Heldu den ikasturte berrirako prestatzen hasiak dira Baztan Ikastolan. Horren erakusle, hilabete hasieran, goitiko ikastolako zenbait gela egokitzen eta txukuntzen aritu ziren. Gainera, kuadrilla ederra bildu zen eta ederki aprobetxatu zuten.



Iruritako dantzariak ekainean egindako emanaldian.

Terra ikuskizuna ortziralean Iruritan ikusgai

19:00etan eta 20:00etan izanen dira emanaldiak eta sarrerak aitzinetik gorde behar dira

TTIPI-TTAPA

Iruritako dantzariak eta abesbatza tikiak antolatuta, *Terra* emanaldiaz gozatzeko aukera izanen dute uztailaren 30ean, ortziralean, herrian. Ekainean egitekoa zuten emanaldietako bat euriagatik gibelatu egin zuten eta horren ordez bertze bi hitzordu zehaztu zituzten.

Ortzirale honetan izanen dira bi saioak: 19:00etan eta 22:00etan. Ikuskizunaz gozatu nahi dutenek eserlekuak aitzinetik webgunearen bidez (www.iruritakodantzariak.info atarian) erreserbatu ahal izanen dituztela jakinarazi dute. Ea oraingo honetan dantzari eta ikusleek eguraldia lagun duten!

Arbonako nekazaritza lursaila defendatzeko okupazioari elkartasuna

TTIPI-TTAPA

Arbonan (Lapurdi) hamabortz hektareako lursail bat saldu nahi dute eta horren kontra eta «lurren salmenta espekulatiboa» salatze hainbat herritarrek lurra okupatu dute. Hain zuzen, Arozak herri ekimenetik «babesa eta elkartasuna» adierazi nahi izan diete. Arozak-en arabera, «Lekarozen egin nahi duten bezala, bertako herriarekin loturarik ez duten espekulatuzaileek, inongo zilegitasunik gabe, nekazaritza lurak bereganatu nahi dituzte. Lurra landu eta

bertako elikagaiak ekoizteko erabili beharrean, aberats bakar batzuen kapritxoak asetze erabili nahi dituzte, nekazariak lurrik gabe utziz».

Bide batez, «Arbonako ekin-tza eta auzolanetan parte hartze» deia egin dute eta «elkartasunaren eta elkarlanaren garrantzia» ere azpimarratu dute, «borroka bat aitzinera atera eta irabazteko ezinbertze» dela iritzita. Ondoko asteetan «herri bezala dugun indarra Arbonarat bideratu» nahi dutela gaineratu du Arozak herri mugimenduak.



MAIALEN IANTZI / BAZTANDARREN BILTZARRA

Baztandarren Biltzarra Berroetan

Uztailaren 18an Baztandarren Biltzarra eguneko ospakizun xumeekin batera, Baztan kantuz ospatu zen Berroetan. Herri-tarrek herriari buelta eman zioten musikarien laguntzarekin; herriko hainbat xokotan kantu zaharrak kantatuz. Gainera, orga ederrak atera zituzten herriko ttikienek plazara.



EUSKARABENTURA

Euskarabentura Lekarozen

Hilabete hasieran Urruñan hasi eta uztailaren 11n Lekarozen akitu zen Euskarabentura espedizioiko lehen txanda. Geroztik Euskarabenturaren bigarren txanda ere egin dute, Bidania-Goiatzen (Gipuzkoa) abiatu eta Aulestin (Bizkaia) akitu dena, eta tartean ibili da Garazi Sarobe elizondoa.

Txistulari elkartearen ikuskizun berrian 1521a oroituko dute

Nafarroako hainbat herritan ibiliko dira eta abuztuaren 13an Amaiurren izanen da

TTIPI-TTAPA

Noingo bataila gertatu zene-tik 500 urte bete diren honetan, une hori oroitzeko hitzorduak antolatu ditu Euskal Herriko-Nafarroa Txistulari Elkar-teak. Ikuskizun ibiltaria antolatu dute, musika ez ezik, dantza zein ikus-entzunezkoak uztar-tuko dituen. Nafarroako hainbat tokitan ikusi ahal izanen da.

Ikuskizun ibiltaria

Nafarroaren historian mugarri izan den gertakaria da aipatu-rikoa eta ikuskizun ibiltariaren bidez egingen zaio keinu. Abuz-tuaren 13an, bigarren ortzira-lean, izanen da Amaiurren, baina aurretik uztailaren 24an Tuteran eta abuztuaren 7an Otsagabian ere geldialdia izan-nen dute. Aurizberrin eta Iruñean abuztuaren 14an eta

1521EAN NAFARROAK INDEPENDENTZIA GALDU ZUEN

irailaren 11n izanen dituzte hitzorduak, hurrenez hurren.

Musika eta dantza uztartuz

Antzinako musika eta musika tradizionala uztartuko dituzte ikuskizunean. Horrez gain, alarde honetan dantzaz goza-tzeko aukera ere izanen dute, Oberena Dantza Taldearen eskutik. Urquizak adierazi zue-nez, «normalean bakar-lari izateko paradarik ez duen mu-sika tresna baten aldeko apus-tua egin nahi izan dugu, *Txi-rula eta ttunttuna* Joakin Le-kunberrik konposatutako obraren bidez». Era berean, bakar-lari Maite Itoiz eta John Kelly ariko direla nabarmendu zuen, «aunitzentzat aski eza-guna den abesti batekin».

Hala, ikuskizuna Nafarroako historian barna murgilduko da eta ibilbide hori gidatzen, gi-doigintzan eta eszenaratzean, Ventura Ruiz ariko da. Semea Nafarroako armadan duen amaren rola izanen du Ruizek. Tamaina handiko ikus-entzu-nezkoez lagunduta egonen da musika, dantza eta antzerkia biltzen dituen emanaldia.



Miguel Iparragirre omendu dute Zigan. A. GAMIO

Miguel Iparragirre omendu dute uztailaren 18an Zigan

A. GAMIO

40 urtez akordeoi irakasle lanetan aritu den Miguel Iparragirrek joan den azaroan hartu zuen erretiroa. Azken hilabeteetan, egindako lana eskertzeko, hainbat omenaldi hartua da Iparragirre. Baztandarren Biltzarra ospatze-koa zen egunean, uztailaren 18an, ere egin zioten keinurik.

Omenaldia eta eskerrak

Osasun egoera dela eta, ohiko ospakizunik egin ezin zuten arren, Baztandarren Biltzarra elkarteak deialdia egin zuen 11:00etan herriko plazetan bildu eta seinalea egiteko. Gehiago ere bada. Urtero, egun horretan, herri-tar bat omentzen dute. Aurten omendutakoa Iparragirre izan da, «urte aunitzez baztandar aunitzi akordeoiarekiko grina eta maitasuna erakusteatik».

Omenaldia Zigan egin zuten eta bere zenbait ikaslerekin batera herrian soinu-a jotzen aritu zen. Momentu «polita» izan zen «Baztandarren Biltzarren grina detaile ttikie-kin mantendu zelako».

Zigako Herriak eskerrak eman ditu «herritarroi ome-naldi xume horren lekuko izateko aukera eman digute-lako». Bide batez, elkarteak egiten duen lana azpimarra-tu nahi izan dute: «badakigu esku eta buru gutti direla eta gogotik egiten dutela lan».

Heldu den urtera begira, hori indartzeko itxaropenez solas egin dute: «ea guztion-tzako berezia den egun hau antolatzeko indar berri aunitz sartzen den. Zorionak Miguel Iparragirreri egin duen lana-gatik eta Baztandarren Bil-tzarrari besta hau posible egiteagatik».

Ohariz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ESTUDIO DE PROYECTOS

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

JOSEPHINE'S ENGLISH
Bertako irakaslea

TALDEAK: HAUR, GAZTE eta HELDUAK
Lehen hezkuntza 5. mailatik goiti
DBH eta Batxilergoa (B1 eta B2)
Web orrien itzulpenak

MATRIKULA IREKIA: abuztuaren 23ra arte

Christina Irigoyen
M. 637 176 572 · Santiago, 42 Elizondo
josephinesenglish@gmail.com

«Tailerrak beharrezkoak dira haurren garapen psikosozialerako»

IRURITAKO GURASO ELKARTEA BAZTANGO ESKOLA TTIKIAK

Duela 25 urte hasi zen Baztango Eskola Ttikien koordinatzailea tailerrak antolatzen, herrietako haurrek haien adineko jendea ezagut zezaten. Orain, Covid-19a dela eta, hainbat ikastetxetako ikasleak nahasten dituen jarduerak debekatu ditu gobernuak



Iruritako Eskola zaharrean elkartu ohi ziren herrietako haurrak asteazkenetan.

R. OSKARIZ

12 ikastetxek osatzen dute Baztango Eskola Ttikien elkarte: Almandozek, Amaiurrek, Arizkunek, Arraiozek, Azpilkuetak, Erratzuk, Gartzainek, Iruridak, Lekarozek, Oronoz-Mugairik, Urdazubi-Zugarramurdik eta Zigak. Azken 25 urteetan, asteazkenero elkartu izan dira bertako ikasleak. Hasieran Elizondon egiten zituzten tailerrak, baina Iruritan eskola berria eraiki zutenetik, Iruritako eskola zaharrean elkartu izan dira ikasleak. Bertan, Musika, Gortzuz Heziketa eta Ingelesa ikasteaz gain, adin bereko haurrak ezagutzen gaituzte eta harremantzeko gaitasunak garatzen dituzte.

Nolako eragina izan du Covid-19ak azkeneko bi kurtsoetan?

Iazko ikasturte bukaeran, denak etxetik ikastera behartuak izan zirenean, arras gogorra izan zen eta bakoitzak ahal zuen moduan egin zion aurre. Aurtengo kurtsoan, Hezkuntza eta Osasun Departamentuak ezarritako neurriekin, gela bakoitza talde egonkortzat hartu dute, eta ezin izan dute gainerako ikasleekin harremanik izan, ez eskola barnean ezta patioan ere. Kontuan hartuta eskola ttikien ikasle kopurua murrizta dela, bertzeekin jolasteko, elkarlanean aritzeko eta denek denekin ikasteko aukera galdu dute. **Zenbat ikasle parte hartzen dute asteazkenetako tailerretan?**

Eskola ttikietako 4., 5. eta 6. mailako ikasle guztiak elkartzen dira, Urdazubi eta Zugarramurdikoak izan ezik. 90-100 haur inguru dira guztira.

Zergatik dira hain garrantzitsuak saio hauek ikasleendako?

9-12 urte bitarteko haurrak izanik, berebiziko garrantzia daukate tailerrek gure seme-alaben garapen psikosozialerako, Baztango errealitate geografiko eta demografikoa kontuan hartuta. Izan ere, eskola ttikietan maila bakoitzean ikasle bakarra dago maiz. Iruritako saioak dira haien adineko jendea ezagutzeko bidea, euren behar psikologiko, sozial eta emozionalak aseko dituzten harremanak eraikitzeke abiapuntua. Ins-

titutura joatean bertan izanen dituzten ikaskideak alde aurretik ezagutzeko eta haien adineko lagunak egiteko ere baliagarriak dira.

Hezkuntza Departamentuak tailerrak bertan behera uztea erabaki du. Zergatik?

Baztango guraso elkarteetatik hainbat eskutitz bidali ditugu tailerren garrantzia aipatuz eta erabakia hain agudo ez hartzeko eskatuz. Hezkuntza Departamentutik eskutitz hauetako batzuk erantzun dizkigute, eta erantzuna berdina da beti: «ez da eskola desberdinetako haurrak nahasten dituen jarduerarik egingen». **Neurriak hartuta, tailerrak arriskuak dira?**

Ez. Iruritako eskola zaharrean eta frontoian espazio nahiko dago adin bakoitzeko ikasleak hartzeko, beraz, ez lirateke hainbat adinetako ikasleak nahastuko. Gainera, akitu den ikasturte honek erakutsi digu gure seme-alabek arras ongi onartu eta errespetatu dituztela ezarritako protokolo guztiak, eta honi esker, eskola barnean ez da kutsadurarik egon. Bertzalde, eskolaz kanpoko jarduerak eta udalekuak egitea baimenduta dago eta hauetan bai, hainbat herri eta adinetako haurrak nahasten dira... Orduan, zergatik asteazkenetako saioetan ez?

Ikasleek zer diote egoerari buruz?

Tailerretan alde aurretik parte hartzen zuten haurrek akitu dugun ikasturtean ez zirela egingen jakin zutenean, izugarrizko dezepzioa hartu zuten.

Zein irtenbide bilatzen ari zarete?

Komunikabideen bitartez gure kezka helarazi nahi dugu, jendeak jakin dezan tailerrak gure seme-alabendako zein onuragarriak eta garrantzitsuak diren. Hezkuntza Departamentuak hartutako erabakia-ekin ados ez gaudela jakitea nahi dugu, eta ikasturte hasieran egonen den osasun egoera kontuan hartuz, gaia birplanteatzea eskatu nahi diogu.



Azkeneko besta ttikietan ateratako argazkia da, 2019koa, hain urrun ikusten dena...

Besten seinalea egin nahi dute herritarrek

Segurtasun neurriak hartuta, ekitaldi batzuk antolatu nahi dituzte, baina momentuko osasun egoeraren arabera izanen da

MARIFA ETA KORO

Andre Mari bestarik ez dugu-
la izanen badakigu, baina hala
ere, zerbaiten seinalea egiteko
intentzioarekin bildu zen Ake-
larre Elkartea herriko etxeko-
ekin uztailaren 8an.

Beharrezkoak diren segur-
tasun neurriak harturik, behar-
bada pilota partidaren bat,
plazan kontzertuak, edo ha-
lako zerbait egiteko asmoa
edekita utzi zuten, eta zehaz-
tasun gehiagorekin, bertze
bilera bat egitea adostu zuten.

Baina zoritzarrez, sanfermi-
nen ondotik gertatutako ku-
tsadura haundiak, egitasmo

hau franko zaildu du. Aстетik
astera egoera aldatzen denez,
gaur egin ezin jakin nola ego-
nen garen Andre Mari inguru
horietan.

Juan Mari Beltran ortziraletan

Bestak baino lehen, hala ere,
bada segurtatua den ekitaldi
bat, ortzirale honetan, uztai-
laren 30ean, Juan Mari Beltra-
nek emanen duen emanaldia.
Kostaldeko Soinuak izenbu-
ruean Lapurdi, Gipuzkoa eta
Bizkaiko kostaldean bildutako
hainbat euskal kantaz goza-
tzeko emanaldia egingen du.
17:00etan hasiko da.

Interneteko konexioa azkarra toki publikoetan, motela partikularren artean

MARIFA ETA KORO

Herri ttiki hauetan dugun de-
sabantailetako bat, Interne-
teko abiadura eskasa da. Par-
tikularren konexioak oraindik
motel daude, baina zuntz
optikoa sartu da herriko erai-
kuntza publikoetan bederen.
Udalen informatika baliabi-

deak kudeatzen dituen ANIM-
SA elkarteak sartu zuen zuntza
herriko etxean, medikuaren
kontsultategian eta eskolan.
Horretaz gain, leze eta mu-
seorako online erreserbak
egiteko, duela urte eta erdi bi
toki horietan ere sartu zen
Interneteko abiadura azkarra.



KORO ETA MARIFA

Bisitarien joan-etorriari begira

Bisitarien mugimendua handitzen ari dela bistakoa dugu, eta
batez ere uztailako bigarren hamabortzalditik aitzinera. Horren
seinale da uztailaren 17an Azketako aparkalekuan hartutako
irudia. Kopuruak ikusirik, 2019ko uztailako erreferentzia 16.000
lagunekoa dugu (lezean sartuak). Aurtengoa ikustekoa dugu.

Xaretako hiztegia

Maxota: lore xorta. **Marranta:** Ahotsa moteltzea zintzurre-
ko minagatik. **Ozarra:** Atrebentzia handiegia duen pertsona.
Ojoia: Lapurra. **Orena:** Ordua, baita ordularia ere.



ttipi txartela

Josune Sorondo Odriozola
72673152-A
apemuga 2023/04
Zk. 372

ttipi-ttapa

HARTU TTIPI TXARTELA eta erabili

pegatina hau ikusten
duzun denda eta zerbitzuetan

Aprobetxatu aukera!




Ekitaldiz gainezka dator aurtengo uda garaia ere

Abuztuaren 7an Burdinaren Eguna ospatuko da, baina aurtengoan ez da zikiorik izanen

ARANTXA ETA IRAIA

Urtero bezala udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu udari begira. Aurtun, joan den urtean bezala, edukiera kontrolaturik eta segurtasun neurri guztiak betetik egingen dira ekitaldi guztiak.

Lehenik, uztailaren 24an, larunbatarekin, Sergio Arros-pideren bakarrikzeta eta, ondotik, Niko Etxarte eta Dom Earl&Kiki Gracieteren kontzertua egitekoa zen.

Abuztuaren 7an, urtero bezala, Burdinaren Eguna antolatuko da. Goizeko hamarretan hasi eta arratsaldeko seiak arte artisauen azoka izanen da herriko plazan, baita haurrentzako jokoak ere. Eguerdian, burdin mineralez kargatutako idiak ailegatuko dira Axular baserritik plaza ingurura, eta, urtero bezala, burdina urrezko txanponen-gatik trukatzeko ekitaldia egingen dute, Bizkaiko benakeroek eta Salvatore monasterioko abadeak tratua egiten dutenean. 19:00etan, magia ikuskizuna eskainiko dute Javi eta Anakak eta ondotik, Estitxu



2019ko Burdinaren Eguna.

Pinatxoren kontzertua izanen da. Aurtengoan, urtero egiten bada ere, ez da zikiorik antolatu, egungo egoerak ez baitu horretarako aukerarik ematen.

Herri kirol jaialdia abuztuaren 21ean

Udako ekitaldiekin akitzeko, **abuztuaren 21ean** herri kirolen jaialdia izanen da herrian. Arratsaldeko seietan euskal dantzen ikuskizuna izanen da, eta ondotik herri kirolak ere izanen dira. Akitzeko, 20:30ean, tortilla lehaketan parte harturiko plateren dastaketa izanen da.



ARANTXA ETA IRAIA

Ikaburuko lezeen eguna ederra izan zen

Uztailaren 17an ospatu zen Ikaburuko lezeen eguna. Iaz bezala, artisauen postu kopurua nabarmen ttipitu zen, egungo neurriak betetze aldera. Halere, tailerretan, postuetan eta lezeetan bisitari anitz izan zen. Eguraldiak ere lagundu zuen eta hurrengo urteari begira jarriak dira dagoeneko.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN



facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa



JATETXEA • ERRETEGIA
[@asadormontxo](https://www.instagram.com/asadormontxo)

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

Etxera eramateko aukera



Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21

Urdazubi/Urdax

2021eko UDA

Uztailak 24



19:30h
Sergio Arrospideren
bakarrizketa

Niko Etxart eta
Dom Earl &
Kiki Gracieten
kontzertua

20:00h



Abuztuak 7

BURDINAREN EGUNA

10:00 - 18:00h

Haurrendako jokoak
Artisau azoka

12:00h

Burdina urrezko txanponengatik
trukatzeko ekitaldia

19:00h

JAVI eta ANKAren magia
ikuskitzuna



20:00h

Estitxuren kontzertua



Abuztuak 21

HERRI KIROL JAIALDIA

18:00h

Euskal dantzak

19:00h

Herri kirolak

20:30h

Lehiaketan parte hartu duten
patata tortillen
dastaketa



Urdax - Urdazubi
Dantxarinea

www.urdax-dantxarinea.com



32 bikotek eman dute izena gazteriak antolatu pala txapelketan. YOHANA

32 bikotek eman dute izena gazteen pala txapelketan

Partidak astelehenetan, ortziraletan eta igandetan jokatzen ari dira

TTIPI-TTAPA

Arrakasta handia ukan du gazteriak aurten lehen aldikoz antolatu duen pala torneoak. Guztira 32 bikotek eman dute izena eta hiru multzotan banatuta, lehen mailan, bigarrenen eta maila mistoan ari dira. Partidak plazan izaten dituzte, astelehenetan, ortziraletan eta

igandetan, 18:00etatik 21:00etara, eta egun bakoitzean hiru partida jokatzen dituzte. Gazteek TTIPI-TTAPARI kontatu diotenez, finalak bestetan egitekoak zituzten, baina ordurako partida guztiak ez dituzte finituko eta «urrian bazkari baten bueltan finalak jokatzekeo gertakari bat antolatu nahi dugu».



HAZPIAK BAT DANTZA TALDEA

Dantzariak Ezpeletako jaialdian

Uztailaren 16tik 18ra Gauargi haurren jaialdia egin zuten Ezpeletan eta argazkian ageri diren Hazpiak Bat Taldeko zortzi dantzariak zuten hutsik egin. Beraien dantzarako abildadea jendearen aitzinean erakutsi zuten neska gazteek.

Eskubaloiturneoa alde batera utzi dute

Azken osasun neurriak direla eta, hainbat ekitaldi bertan behera gelditu dira, eta horietako bat da Sarako Urtxintxak eskubaloiturneoa. Azokak, ordea, beraien bidea egiten ari dira. Ortzegun guztiz egiten duten ekoizleen azokak ere hutsik egin gabe segitzen du, baita astelehenetan egiten duten udako artisauen azokak ere. Ekoizleen azoka 08:00etatik 13:00etara egiten dute eta artisauena, berriz, 09:00etatik 13:00etara.

Covid-19aren kontrako txertaketa kanpaina

Herriko kontseiluak jakinarazi duenez, uda honetan, koronabirusaren aurkako txertoaren bigarren dosiak hartzeko aukera izanen dute herritarrek Saran. Baina orain arte hartu ez dutenei ez diete lehenbiziko txertorik paratuko. Buruiletik aitzinera izanen dute horretarako aukera, lehenbiziko txerto dosiak hartzeko kanpainarekin hasiko baitira. Interesa dutenek e-mail bat igorri beharko dute herriko kontseiluaren helbide honetara: sara.komunikazioa@gmail.com.



Izarra errugbi taldekoak Durangoren aurkako partida egunean. ALICE ZUMEAGA

Errugbi elkarteak abuztuaren 5ean egingen du bi bidaien zozketa

TTIPI-TTAPA

Urteko 45.000 euroko aurrekontuari aurre egiteko zozketa ederra antolatu du Sarako Izarra errugbi elkarteak. Gastu hori estaltzeko urtetan klubari diruz lagundu dioten «kideak muturreko egoeran» daudelako eta «enpresa horiei garai hauetan laguntza ezin zaiela eskatu» ikusita antolatu dute zozketa. Horrez gain, dirua biltzeko «ekitaldiak antolatzea zaila» dela gaineratu dute, «osasun arauak» tarteko.

Hala, mendian edo itsasoan opor ederrak pasatzeko bi bidai zozketatuko ditu errugbi

elkarteak. Lehenbiziko saria lau lagunendako zazpi gaueko egonaldia izanen da Saint Laryn, eta bigarren saria Grezian bi lagunendako egonaldia izanen da.

Tonbola online

Zozketan parte hartzeko txartel bakoitza bortz euroren truke sarakoizarra.com webgunearen bitartez erosten ahalko da, norbere datuak bete eta txartelarekin ordainduta.

Bi bidaien irabazleak zein diren jakiteko, berriz, abuztuaren 5ean zozketa egingen dute.



Bote-luze partida jokatu zuten igande eguerdian karrikan JL BESSONART

Biziki ongi eta arazorik gabe joan dira herriko bestak

Baldintza zorrotzak izanik ere, besta herrikoien izpiritua zaindua izan da eta denak pozik eta harro agertu dira

JEAN LOUIS BESSONART

Aste hondar euritsua iragarria zuten aro-ikerlariek. Zorionez iragarpenak ez ziren bete, nahiz eguzkiak agerraldi guti egin.

Orokorki bestak biziki ongi joan ziren, arazorik gabe, Romain Guilçou gazte komiteko buruak bere bilduman erran duenez «nickel», bertze hitz batez, bikain. Baldintza zorrotzak izanik ere, besta herrikoien izpiritua zaindua izan da buroin-buru, parte-hartzaile guziek gozatzea zutelakotz helburu. Ortzirale arratseko zikiroak sekulako arrakasta ukan zuten, 400 kide hurbildu ziren mahaietara, xapito handi baten

gerizan. Larunbata gehiago kirolari itzulia zen, pilota, mendibizikleta, oinezko ibilaldi eta txaranga baitziren protagonistak. Igandea meza nagusiarekin hasi zen, ondotik bota-luze partidak erakutsi zuen gure karrikaren hertsidura. Egurdiko Paellak 250 bazkaltiar bildu zituen, arratsalde betean A Vista De Nas biarnesen kantaldiak inarrosi zituen elizako galeriak, hondarrera Bizounours taldeak bururatu zuen gaualdia.

Oihartzunen arabera, herriko etxetik, gazte komite baita ostalarien aldetik denak pozik eta harro agertu ziren.

Udako ekitaldiek musika, kirola, dantza eta erakusketak ekarriko dituzte

JL BESSONART

Urtero bezala, sasoi honetan, ekitaldi parrasta bat eskainiak dira bi hilabete hauetan. Larriki aipatzeko, uztailaren 12tik irailaren 13ra astelehenero Xistera partidak jokatuko dituzte 20:00etan. Asteartetan, 09:00etatik 13:00etara eskulangile merkatua izanen da. Zirizkolatzen ekimenez, euskal dantzak uztailaren 13an eta 27an eta abuztuaren 3an eta 10ean, 21:00etan. Asteazken goizetan, lakuan, Beach handball (hondartza-eskubaloia) eta arratsetan, 21:00etan,

Behi lasterkak kirol zelaian. Bi ortzegunez, uztailaren 29an eta agorrilaren 5ean, Zaldubi gelan, 21:00etan *Euskararen Misterioak* aipagai. Ikusmina sor lezake. Ortziralean, 21:00etan, pilota erakustaldiak. Iduri luke ikusgarri horiek ez direla udatarrendako baizik egingen. Haatik, hurbilagoetik behatuz, badira aunitz gauza gure interesa sortu lezaketena. Ez dugu ahortzi behar ekitaldi horien antolatzaileak herriko elkarteak direla eta herriaren bizitzaren irudi bilakatzen dira.

Lau haur sortu eta zortzi herritar zendu dira ekainean

Horra zer aurkitu dugun Herriko Etxean. Sortzeen aldetik: Leandro Da Silva, Artzamen-di karrikan; Imanol Perdoux, Ahetzeko bidean; Unai eta Oihan Biau (biritxiak), Ademaínea karrikan. Ongi etorri herritar berri haueri eta zorianak burasoeri.

Heriotzak: Michel Ostiz, 83 urte; Yvon Benteo, 83 urte; Etienne Guilçou, 66 urte; Ramuntxo Laboux-Larrea, 71 urte; Corinne Susperregui, 52 urte; Louis Legras, 99 urte; Colette Feron, 83 urte eta Michel Aizpurua, 89 urte. Hauen famili eta adixkideei dolumin bizenak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bachen obra entzungai agorrilaren 9an

Donostiako Musika Hamabostaldiaren barrenean Johan Sebastian Bachen obra interpretatuko du Conductus Ensemble orkestak (20 kantari eta 10 musikari), Andoni Sierraren zuzendaritzapean. Agorrilaren 9an, astelehenean 21:00etan hasiko da emanaldia elizan (sartzea: 20 euro).



B multizoko txapelketa eta txapeldunordeak sari banaketaren ondotik. Seme-alabekin ageri da Zubiri. MAIALDEN ANDRES

NIRE USTEZ



ARITZ ZUBIRI
TXAPELDUN

«Ni gustura aritu naiz, baina Loitegi ezeroso ikusten nuen eta hura laguntzen saiatu naiz»

Atzelari goizuetarrak seme-alabekin kontent jaso zituen txapela eta garaikurrak. Aritz Zubirik aipatutakoaren arabera, «partidu guztian gustura aritu naiz. Gehien bat lagunak kezkatzen ninduen, partiduan zehar ez zela batere disfrutatzen ari ikusten bainuen, ezeroso ari zen eta nire buruarekin baino gehiago saiatzzen nintzen bera animatzen eta ahal zenean laguntzen». Loitegi berak ere onartu zuen «lotua» aritu zela finalean eta «Zubirik egindako partida handiari esker lortu dugu txapela». Zubirik zioenez, «hasieran tanto batzuetako abantaila hartu dugu, gero hurbildu egin zaizkigu pare bat tantora edo tanto bakarrera... beti aurretik joan gara baina hasiera parekatua izan da. Bigarren etenaldiaren ondotik sakearekin bizpahiru segidan asmatu dut eta hor puskatu da partidua». Galarretan izandako giroa ere azpimarratu zuen Zubirik: «Aspaldi ez genuen horrelako girorik izan frontoian, eta faltan sumatzen zen jendearen berotasun hori, erabat aldatzen da. Final nagusia ere partida haundi-haundia izan da, jendea animatua zegoen, bero-bero, eta horrela jokatzeko plazer handia da». Iaz Galarretako 50. urteurreneko txapelketa irabazi zuen Zubirik, Urrizarekin batera.

Zubiri txapeldun San Fermin erremon-te txapelketan

B multizoko finalean goizuetarrak, Loitegiarekin batera, 30-21 irabazi zien Oskar Urrutia saldiastarrari eta Martirenari

TTIPI-TTAPA

San Fermin erremon-te txapelketako finalak jokatu zituzten uztailearen 14an, Hernaniko Galarreta pilotalekuan. B multizokoan eskualdeko erremon-tista bana zegoen bikote bakoitzean: Oskar Urrutia II.a aurrelari saldiastarrarekin aritu zen Martirena eta Aritz

Zubiri atzelari goizuetarrarekin Loitegi profesional berria.

Zubiri izan zen partidako onena (atzelaria izan arren tanto gehien goizuetarrak egin zituen), bikotearen zama bere gain hartu zuen eta maisuki aritu zen. Loitegi bere aurrelariak bosgarren partida zuen profesioaletan, final bat gai-

nera, eta lotua ibili zen partida osoan, jokoan gehiegi sartu gabe. Halere, beti aitzinetik izan zen bikote urdina, alde politarekin, gehienetan. Hogeigarren tanto aldera tanto bakarrera hurbildu zen pare bat aldiz bikote gorria, Oskar Urrutia saldiastarrak egindako lanari eta tantoei esker batez ere. Baina berdinketa eskura zutenean, Martirenak huts egin eta ez zuten inoiz berdintzerik lortu. Martirenak hasieran ongi atera zuen, baina gero ez zuen asmatu. Azkeneko hamar tantoetan erakustaldia eman zuen Zubirik, defentsan sendo beti bezala, baina baita erasoan ere. Azkenean, 30-21 irabazi zuten Loitegi eta Zubirik.

Urriza eta Aizpuruk 30-29 irabazi Ansa eta Larrañagari

San Fermin Erremonte Txapelketako final nagusia bikaina suertatu zen. Ia partida osoa aitzinetik izan ziren Ansa II.a eta Larrañaga, baina sufritzearen poderioz, hogeita bederatzinako berdinketaren ondotik, azken tantoa Urrizak eta Aizpuru III.ak egin zuten (30-29). Bertze txapel bat Urriza handiarentzat.



Urriza pilota astintzen, final nagusian. MAIALEN ANDRES



Beti Gazteko kirolariak bizikleta gainean 125 postu berreskuratu zituen.

Bixente Igarzabal zazpigarren izan da Altriman proban

50 urtez goitiko kategorian bigarren sailkatu zen lesakarra eta denborarik onenak egin zituen bizikletan eta lasterka

TTIPI-TTAPA

Bixente Igarzabal lesakarrak Altriman proba gogorra burutu zuen uztailearen 17an. 14 ordu, 17 minutu eta 23 segundo behar izan zituen ironman berezi hau osatzeko eta meritua handiko zazpigarren postua lortu zuen sailkapen orokorrean. 50 urtez goitiko

kategorian bigarren izan zen. Denera 284 kirolarik parte hartu zuten eta horietatik 147k lortu zuten bukatzea.

Ohi bezala, 3.800 metroko igeriketa probaren ondoren dezente giblean ateratzen da Igarzabal uretik. Ordubetan, 19 minutu eta 51 segundo behar izan zituen eta 132garren pos-

tuan ateratzen zen. Baina, beti bezala, bizikleta gainean egin beharreko zati gogorrean (198 kilometro luze, 5.200 metroko desnibel positiboarekin) aitzinera egin zuen lesakarrak (7 ordu, 11 minutu eta 33 segundo behar izan zituen eta zortzigarren izan zen) eta proba burutzeko lasterka egin beharreko maratonia, 42,2 kilometroetan, 4 ordu, 6 minutu eta bi segundo behar izan zituen (hemen ere zortzigarren izan zen).

Denera, beraz, 14 ordu, 17 minutu eta 23 segundo behar izan zituen Beti Gazteko kirolariak, zazpigarren sailkapen orokorrean eta bigarren bere kategorian. Gainera, bere kategorian denborarik onenak egin zituen bai bizikletan, baita lasterka ere.

Igarzabal kontent dago egingadako probarekin, «karrera benetan polita ateratzen zela» aipatu digu. Bere 28. Ironman bukatu du lesakarrak eta Altriman zazpigarren aldiz egin du, bere proba kuttuntakoa baita (bigarren izan zen 2012an): «Lasterketa honek aunitz exijitzen dizu, baina trukean bertze inon sentitzen ez diren emozioak sentitzen dituzu», aipatu digu.

Baztan-Errekako laxoa txapelketako finala Arraiozen abuztuaren 7an

TTIPI-TTAPA

Arraiozko plazak hartuko du abuztuaren 7an Baztan-Errekako 41. Laxoa txapelketaren finala. Hau irakurtzen duzunean dagoeneko erabakia izanen da finalistetako bat: Arraioz Sagardia edo Oiz. Arraiozko plazan jokatu zuten finalerdietako joaneko partidazuztailearen 18an eta etxekoak nagusitu ziren (9-4). Itzulera-koa larunbatean jokatzea zuten Oizen.

Bertze finalerdia aste honetan erabakitzea da, Doneztebe Apezteguia eta Irurita Migueleneren artean. Uztailearen 28an, asteazkenean jokatzea zuten joanekoa Bearzan eta uztailearen 31n, larunbatean 18:30ean Iruritan itzulera-koa. Hasierako fasean partida guztiak irabazi zituztela kontuan hartuz, baztandarrak dira faboritoak.

Bezperan, abuztuaren 6an, ortziralean 17:00etan, gazte-txoen txapelketako finala jokatuko dute Arraiozen.



UTZITAKOA

Emakume pilotari profesionalak Bartzelonan

Ados pilota elkarteak antolatutako Plazaz Plaza txapelketako jardunaldia jokatu zen uztailearen 18an Bartzelonako Club Natació Barcelonan. Beraz, lehen aldiz emakume pilotari profesionalen jaialdia ikusteko aukera izan zuten. Irantzu Etxebeste beraterra izan zen eskualdeko ordezkari bakarra.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aldabe eta Aimar Saldias finalerdietan

Nafarroako erremonte txapelketako finalerdietarako sailkatutako lehen bikotea da Lekunberriko Aldabe eta Oizko Aimar Saldias osatutakoa. Agoitzen uztailearen 17an jokatutako jardunaldian nagusitu ziren. Biharamunean, Saldias Otxandorenarekin irabazi zuen Agoizko torneo.

UZTAILAK 29 - IRAILAK 2

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKOA

BERA VII. Gau Lasterketa

Manttalek antolatuta, 7,3 kilometroko ibilbidea, 300 metroko malda positiboa. Izen-ematea: www.manttale.com. Abuztuaren 1ean, 22:00etan.

KONTZERTUAK

ARANTZA

Joseba Irazoki eta Rüdiger

Aterpean, abuztuaren 31n, 19:30ean.

Estitxu Pinatxo

Aterpean, abuztuaren 1ean, 12:00etan.

Erabatera

Abuztuaren 6an, 19:30ean.

Jon Basaguen

Aterpean, abuztuaren 7an, 19:30ean.

Balerdi Balerdi

Aterpean, abuztuaren 13an, 19:30ean.

Bankako menditarren kantaldia

Plazan, abuztuaren 13an, 18:00etan.

Txamukos

Plazan, abuztuaren 15ean, 20:00etan.

Makala & Konsul

Aterpean, abuztuaren 22an, 12:00etan.

Esne Beltza & Amak

Kontzertua eta afaria. Aterpean, abuztuaren 27an, 19:30ean.

LEITZA

Modus operandi

Uztailaren 31n, 22:00etan.

DONAMARIA

Trikidantz taldea

Plazan, uztailaren 31n, 19:00etan.

LESAKA

Xabi Solano eta Zigor DZ

Irubide atarian, uztailaren 29an, 19:30ean.

Txamukos

Abuztuaren 1ean, Onin erreka-eremuan, 12:30ean.

BERA

A Dream of jazz

Altzateko plazan, abuztuaren 1ean, 19:00etan.

IKUSKIZUNAK

LEITZA

Herri kirol saioa

Plazan, abuztuaren 1ean, 12:00etan.

Tio teroren semeak dantzarien emanaldia

Abuztuaren 28an, 19:00etan.

LESAKA

Sormen ginkana

Biurranan, uztailaren 30ean, 18:00etan.

DONAMARIA

Ines Bengoa ipuin-kontalaria

Plazan, abuztuaren 8an (ordua zehazteke).

AMAIUR

Txistulari elkartearen ikuskizuna

Abuztuaren 13an.

ARANTZA

Herri kirol saioa

Frontoian, abuztuaren 14an, 17:00etan.

Bertso saioa

Sebastian Lizaso, Amaia Agirre, Ekhiñe Zapiain eta Sustrai Colina.

Abuztuaren 14an, 19:30ean.

Pilota partidak

Abuztuaren 15ean, 17:00etan hasita.

OSPAKIZUNAK

ETXALAR

Haurraren Eguna

Abuztuaren 1ean.

URDAZUBI

Lezeen Eguna

Abuztuaren 7an.

ERAKUSKETA

BERA

Nire gurasoei omenaldia (Ignacio Larraren erakusketa)

Kultur etxean, uztailaren 31tik abuztuaren 29ra.

KIROLA

LEITZA

Profesionalen mailako esku pilota partida

Abuztuaren 29an, 12:00etan.

ETXALAR

Usategietako Igoera

Uztailaren 31n, 15:00etan.

BERA

VII. Gau Lasterketa

Abuztuaren 1ean, 22:00etan.

AZOKA

LESAKA

Merkatu ttikia

Beheko plazan, abuztuaren 31n, 10:00etatik 14:30era.

Nire aukera

«Nire hurrengo etapa futbolaz bertze modu batera gozatzea da»

ASIER LIZARTZA ESPARTZA ARIZKUNGO GAZTEA



Ttiki-ttikitatik izan da futbol-zalea Asier Lizartza Espartza (Arizkun, 1989), «haurretan aitarekin Baztan ikustera joaten ginen, eta orduan Arizkongo jokalarri on batzuk ari ziren; Garbalena, Etxeberria... idoloak ziren». Herrian, lagunekin, kirol aunitzetara jositzen ziren, «baina gehienbat futboleant». Gaztetan hasi zen Baztan Kirol Elkartean jokatzen, eta 20 urtez defendatu ditu bere kolore eta taldea. Goitibeheiti aunitz bizi izan ditu taldeak, hainbat garaipen goxo eta momentu garrantzitsuak, haien artean berriki maila autonomikora izandako jaietsiera. Baina aitzinera egin dute beti. Gaur egun, Elizondon bizi da Lizartza, aita izan da berriki eta etenaldia egitea erabaki du: «Nire hurrengo etapa futbolaz bertze modu batera gozatzea da».

Bi hamarkada baloia ostikoka

20 urte aunitz dira, «baina *ti-tau* pasatu zaizkit». Lagun aunitz egin ditu Asier Lizartzak futbolarekin, eta horrekin batera «hainbat irakaspen eta balore garatzea lortu dut; konpromisoa, errespetua, esfortzua, kolore eta talde batekiko maitasuna...». Denbora tarte horretan zenbait aldaketa izan ditu klubak, horietatik garrantzitsuenak «2016an Igotz Gardek eta Mikel Altzurik taldea hartu zutenean gertatu zen. Kontzeptu eta lanketa aldetik

«HAINBAT IRAKASPEN ETA BALORE EMAN DIZKIT FUTBOLAK»

kristoren saltoa izan zen». Goitik beheiti aldatu zuten taldea eta denboraldi bikaina izan zen Baztango talde nagusiarendako. Lizartzak futbolarekin inoiz biziaren momenturik hobereana azken partiduko azken minutuan gertatu zen, Azagran: «Xabier Gilek gola sartu zuen 90. minutuan eta hirugarren mailara igotzea lortu genuen».

Baina denak ez dira momentu onak izan Lizartzarendako; «bolada onak eta txarrak izan ditugu». Taldearen jaietsierak ziren makurrenak, eta «aunitzetan etxerat eramaten genituen kaskarkeriak». Hala ere, «beti elkarrekin bizi izan ditugu, hori da Baztan. Gauzak gaizki doazenean ere, zaleak eta klubeko aunitz hor daude laguntzen, eta eskertzekoa da».

Talde-lanaren garrantzia

Garaipenak eskuratzeko, elkartzasuna garrantzitsua da, eta taldekideen arteko konplizitateak da gakoa, «dudarik gabe, talde-kiroletan ongi funtzionatzeko lehenbiziko pausoa da. Elkar ongi eza gutzen badugu eta giroa ona bada, dena errazago egiten da».

Bakoitzak bere eginkizuna dauka taldean eta Lizartzarena ez da makala izan, Baztango bigarren kapitaina izan baita urte aunitzez, Luis Iturriria kapitainarekin batera. «Ardura handia izan da, baina ikaragarri polita, eta ahalik eta hobekien egiten saiatu naiz. Batzuetan hanka sartu dut, baina solastatzea eta barkamena eskatzea ere ardura horren barne sartzen da».

«BIGARREN KAPITAINA IZATEA IKARAGARRI POLITA IZAN DA»

Hurrengo denboraldirako «arras baikor» ikusten du taldearen egoera. «Maila autonomikoa arras zaila da, baina dirudienek jokalarri gehienek segituko dute eta ematen du bertze batzuk bueltatuko direla. Gainera, Igotz Gardek segituko du, Baztanek izan dezakeen entrenatzaile hoberena, eta berarekin batera Xabi Maia eta laguntzaileak, hoberenak hauek ere!».

Klubean gauza aunitz «arras ongi» egiten ari dira, «eta horren seinale da Baztan Kirol Elkartetik Realera, Osasunara eta bertzelako talde potentetarat joan diren neska-mutikoa».

Etorkizunera begira

Azken partiduan agurra eman zion Baztanek denboraldiari, hirugarren mailari eta batez ere Lizartzari. «Ikaragarria» izan zen eta eskerrak eman nahi izan dizkie Asier Lizartzak «nire ondoan dauden eta egon diren guztiei». Etapa berri bat hasiko du orain bere bizitzan, aunitz baitira futbola uztea eragin duten faktoreak, «baina gehienbat orain, etxean, haurarekin, lan gehiago dutilakoz».

«Gauza dezenteren falta sumatuko dut, baina batez ere lehiatzea eta asteburuko partiduen esperoan egotea, eta partiduan aritu ondoko garagardoak ere...». Hala ere, ez da betirako adioa izanen, gero arte baizik. «Bertze modu batera» gozatuko du kirolaz orain, eta noizbehinka Giltxaurdin «ostiko batzuk ematera» agertuko da; «horrenbertze urtez errutina bera segitu eta golpez uztea ez dut posible ikusten». Etorkizunera begira, Lizartzak ez dauka asmo zehatzik, baina «duela urte batzuk futbol-eskolan Mikel Garbalenarekin batera haurrak entrenatzen aritu nintzen eta etorkizunean beharbada horrat joko dut berriz ere».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Herriko Etxeko Plazan etxea salgai. ☎616 24 35 30.



LESAKA. Koskontako bidea 9 helbidean, 90 m²ko pisua salgai. 3 logela. Garajearekin eta trastelekua rekin. Prezioa: 170.000 euro negoziagarriak. ☎605 76 28 80.



ARANTZA. Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe ataraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.



BERA. Etxea salgai 400m²ko lursailarekin. Terrazaren gainean bertze bi etxebizitza egiteko baimena eta proiektua. Lauko bazkide kooperatiba, familia handi edo partikularrentzako aproposa. ☎664 71 18 53.

ERRENTAN EMATEKO

BAZTAN. Pisua errentan emateko, pertsona arduratsuei eta nominadunei. Moleztatua. 3 logela, 2 bainu-gela, sukaldia, trastelekua eta aparkalekua. ☎693 69 49 76 (Jose M^a).

IRUÑEA. Hiru logelako pisua errentan emateko, UPNaren ondoan. 3.pisua, igogailuarekin. ☎630 04 54 13 / 620 20 96 63.

BERA. Agerra auzoan pisua errentan emateko. Hiru logela eta igogailuarekin. ☎717 71 23 63.

ERRENTAN HARTZEKO

SUNBILLA, DONEZTEBE, ELGORRIAGA edo **LEGASA** aldean berehala bizitzera joateko etxe bat errentan hartu nahi dute, gerora erosteko aukerarekin. ☎646 77 42 02.

Eskari handiagatik alokairuko etxebizitza behar dira. Jabearentzat

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira **TTIPI-TTAPA** aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da **Ordainketak Rural Kutxako ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

kosturik gabe. Kontratua eta kudeaketa barne. ☎620 02 86 25 / 948 63 05 52.

LANA

ESKARIAK

Adinekoak eta haurrak zaintzeko lan bila, interna moduan. ☎632 75 93 48.

Interna moduan esperientzia handia duen emakumea lan bila. Garbitasunean, sukaldian, zaintzan ongi moldatzen dena. ☎694 42 03 10.

Adineko pertsonak zaintzen esperientzia duen emakumea lan bila. Etxeak garbitzen ere esperientzia duena eta ostalaritzan ere ibilia. ☎633 66 52 46.

Adineko pertsonak zaintzen dituen, etxeko lanak egiten dituen eta ostalaritzan esperientzia duen emakumea lan bila. ☎611 31 02 25.

ESKAINTZAK

BERA. Gasolindegia batean langilea behar dute. ☎629 08 35 67.

MALERREKA inguruko jatetxean zerbitzaria behar dute lanaldi osoan edo erdian aritzeko. ☎605 70 37 05

ELIZONDO. Fruta-denda batean lan egiteko langile bat behar dute. Bidalitza curriculumak kifrut@gmail.com helbidera.

Aldakolan enpresak eraikuntzako langilea behar du. ☎948 58 12 96 edo info@aldakolan.com.

IRAGARKIAK

Sail honetako iragarkiak gure webgunean: <https://erran.eus/merkatu-ttikia>

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,12
- 1.koa 4,00
- 2.koa 3,85

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,23
- 1.koa 4,09
- 2.koa 3,95

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,20/4,30
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,20/9,00
- 8-10 kilokoak: 6,90/7,40

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 59 €

Zerri gizona 1,360€

Zerramak 0,550€ kg/bizirik

Data iturria: Nafarroako Gobernua uztailearen 9tik 16ra bitarteko prezioak)

ANIMALIAK

SALGAI



Sei urteko **zezen** mantsoa salgai, konpromisorik gabe erakusteko prest. ☎661 08 11 10.



Txerrikume pintoak salgai. Lonja arrazakoa. Bizirik edo laberako prest. Informazio gehiago Whatsapp bidez. ☎690 98 61 18.

MOTORRAK

SALDU

Seat Toledo salgai. 500 euro. 120.000 kilometro. ☎603 10 25 41.



Seat Leon Sport 2.TDI autoa salgai, 140 zaldi, 5 atekoa. 183.000 kilometro. Egoera onean. ☎628 90 86 01.

DENETARIK

EROSI

Eskualdeko baserri batean sagardoa egiteko sagarra behar dute. ☎663 59 17 76.



Bizikletako kasko integrala salgai. Giro marka, S tamaina, GoProarentzako eusgarriarekin. Oso egoera onean dago, gutxi erabilia. Opari kaskoaren funda. 85 euro. ☎606 04 25 11.

DONEZTEBEko AVIA GASOLINDEGIA

Club AVIA

CLUB AVIA txartelarekin
%2ko deskontua erregaian
eta %5eko deskontua
dendako produktuetan



Leitza bidea, 49 · T. 948 451 679 · www.doneztebe.net

IXAPARLEGI
INMOBILIARIA

**ETXEBIZITZA EDO BASERRIA
SALDU NAHI DUZU?**

Eskari handiarengatik, salgai jartzeko
etxeak behar ditugu
(Bera, Lesaka, Etxalar, Arantza
Doneztebe, Elizondo...)

SERIOSASUNA ETA PROFESIONALITASUNA
25 URTEKO ESPERIENTZIA DUEN AGENTEA
JARRI HARREMANETAN GUREKIN

API Pinar 7- IRUN
656 708 180
info@inmotxapartegi.com
www.inmotxapartegi.com

Mendaur Motor
Leitzako bidea · DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak

SUZUKI

SUZUKI GRAND VITARA
1.9 DDIS 129 CV. 48.000 KM



SUZUKI GRAND VITARA
1.9 DDIS 129 CV. 68.000 KM



www.mendaurmotor.es



744 484 361

 **ttipi-ttapa**

HILBERRIAK

- **Lili Lasaga Indaburu**, Sarakoa, ekainaren 28an.
- **M^a Encarnacion Bikondoa Bikondoa**, Iruritaakoa, uztailaren 9an, 87 urte zituela.
- **M^a Pilar Arregi Belarra**, Berroetakoa, uztailaren 10ean, 79 urte zituela.
- **Maruja Ziriza Etxepare**, Elizondokoa, uztailaren 13an, 80 urte zituela.
- **Mikel Iturria Martinez**, Etxalarkoa, uztailaren 13an, 16 urte zituela.
- **Josefina Berasain Sestorain**, Leitzakoa, uztailaren 15ean, 91 urte zituela.
- **Florencio Sestorain Larrea**, Leitzakoa, uztailaren 20an, 81 urte zituela.

EZKONTZAK

- **Guillaume Legasa** eta **Maialen Oronoz**, Saran, uztailaren 10ean.
- **Amoury Jacques** eta **Gaelle Isabel Wallart**, Saran, uztailaren 10ean.

BERRIA



WEB eta MULTIMEDIA

MULTIMEDIA

Bideoak, animazioak, gif-ak...
informazioa modu erakargarrian.

• WhatsApp partekatzeko kanpainak
(bideoak eta mikrowebak)




WEB ORRIAK

Enpresa, elkarre eta erakundeentzako
web orriak gailu guztietara egokituak.

• Landetxeak
• Komertzioak
• Gremioak...

Ordenagailu, tablet eta mobiletara egokitua

Testu eta argazki galeriak

Kontaktu formularioa

Lokalizazio-mapa

Hizkuntzak aukeran




KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

**ESKATU
AURRE
KONTUA**

OROIGARRIA



Mikel Iturria Martínez

*Zure begietako dizdira eta
ezpainetako irria
beti gurekin egonen dira
Mikel maitagarria.*

Ansolas Arburua familia

OROIGARRIA



Lucio Arrechea Sanzberro
Etxalar, 2021-07-05

*Argi bat itzali da hemen lurrean
Berri bat biztu da han zeru ederrean
Gure oroimenean izanen zara betiko
Ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik.*

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Mikel ITURRIA MARTINEZ



Beti irribarrea zenuen lagun min
gauza denen gainetik aitzinerat ekin
bizitzari helduaz gogo guziekin
indar hau utzi duzu betiko gurekin
maite izan zaitugun eskolako lagunekin.

URTEURRENA

Gurutze Iparragirre Oskoz
Arantzan, 2014ko uztailaren 15ean


Zazpi urte zu gabe,
zeinen erraza den erratea
baina zeinen zaila den ahaztea,
gau beltzenean ere ezer ez ikusita ere,
beti egoten zara izarrik distiratsuenen.

Zerura begiratu bertzerik ez baitugu
egin behar egunero ikusteko zure distira,
izan ere distiratsu segitzen duzulako
oraindik ere askoren bizian.

Goizane lehengusina

VII. URTEURRENA

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58, 744 48 43 61 edo info@tupi.eus




948 05 90 90
ENPATIA, HURBILTASUNA
ETA BEGIRUNEA
www.izarratanatorio.com

IZARRA
HEMEN, ZURE ORDOAN
AQUÍ, A TU LADO

BEILATOKIAK: Elizondo,
Arantza, Bera, Igantzi
Doneztebe



BAZTAN BIDASOA
Ehorketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3


web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak







Zuen ondoan, betidanik

- Nafarroako hileta zerbitzuetan aitzindariak eta eskualdean zerbitzua ematen lehenak gara.
- Konfiantzazko taldea osatzen dugu, errespetuz eta profesionaltasunez lan egiten dugu.
- Liderrak gara Nafarroan, zuen esanetara gaude.
- Zerbitzu integrala. Norberaren nahietara egokitutako agurrak.
- Aseguru etxe guztiekin lan egiten dugu. Zuk aukeratu eta guk kudeatuko dugu.
- Etxez etxeko zerbitzuetan adituak.
- Hilerrietako lanetan espezializatuak (partikularrak eta instituzionalak)
- Prezio lehiakorak.

948 63 74 04 / 948 19 70 70 **ELIZONDO (Santiago, 52)**

URTEBETETZEAK



Berako **Janire Ibarburi Andueza** 9 urte beteko ditu abuztuaren 7an. Mila kilo zorion etxeko sorgintxoari familia guziaren partetik. Ongi pasa!



Amairuko **Xana Mujika Elizalde** abuztuaren 16an 6 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta egun polit bat pasatu Goren batekin!!



Aunitz urtez **Siuka Bidegarai Iturre!** Agorriaren 2an jada 2 urte! *Parabéns borboletinha* mugalar! Mamäek eta aitak mila musu igortzen daukizugu. Besarkada erraldoia Argentinako eta Bidarraiko familiaren partetik. Segi beti bezain alai!!!



Igantziko **Maialen, Araitx** eta **Marenek** 5 urte beteko dituzte abuztuaren 3an, 11n eta 28an. Aunitz urtez mari pertxentak, berendu goxoaren esperoan geldituko gara!



Oilaskoa kanta kantari
Kukurruku kurruku
Iker Aizuri Lujanbion
Kukurruku kurruku
9 urteak ospatzen
Kukurruku kukurruku
Muxuak berari oparitzen
Kukurruku kurruku.



Igantziko **Miguel Hita** gure atabik 91 urte bete ditu uztailaren 24an. Aunitz urtez atabik!!! Muxu haundi bat. Olaia eta Ainara.



Aupa **Unax**, gure altxorra! Ttipi-ttapa ailegatu zara zure lehenbiziko urtebetetzera. Emozioz beteta ospatuko dugu. Zorionak ttiki polita! Belarri tiraldi eder bat etxekoen partetik.



Berako **Unax Iantzi Goienetxek** abuztuaren 10ean urtea beteko du. Zorionak, **Unax!** Alaia, *xaladin!* Badakizu, bihotza, burua, eskuak... sentitu, pentsatu, ekin... elkarrekin! Zenbat ari naizen ikasten zurekin. Aunitz maite zaitu amak.



Argazkiko lau bitxoak direla medio, uztailaren eta abuztuaren besta egun aunitz ditugu. Zorionak eta aunitz urtez **Iñaki, Aroa, Ekaitz** eta **Anderri** familia guziaren partetik. Ongi ospatu eta muxu potolo bat!!



Arantzako **Izaro Landa Iparragirrek** 7 urte beteko ditu abuztuaren 4an. Muxu haundi bat eta aunitz urtez familia guziaren partetik!



Berako **Tiane Larretxea de Mateok** 18 urte beteko ditu uztailaren 30ean. Pasa uda ederra eta aunitz urtez etxekoen partetik.



Igantziko **Maialen Almandozek** 5 urte beteko ditu abuztuaren 3an. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoen partetik!!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPAN!
Internetez <http://erran.eus/>
zorionagurrak helbidean sartuta; TTIPI-TTAPANen **bulegora** etorrita, **postaz** bidalita (Koskontako bidea, 7-1 31770 LESAKA), edo **Whatsappez** 744 48 43 61 zenbakira idatzita.



ETIKETAK eta PEGATINAK



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

**ESKATU
AURRE
KONTUA**



DISEINU eta INPRENTA LANAK
Neurri ezberdinak - Itsasgarriarekin edo gabe
Elikadura-packagingerako berezia

PLAZAN BAZAN



MEZUA

Eman marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta esaera polit bat agertuko zaizu.

ALFABETOA



DOMINOAN



Osa itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan. Meloia, angurria, muxika eta bi izozki mota marraztu behar dituzu.



HANDITIK TXIKIRA

Ordena itzazu arrain harrigarri hauek handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 6.

ITZALA

Ai enel Tranpolinera igo eta irrist egin du gizajoak!
Zein da bere itzal zuzena?



1



3



4



2



6



7



5



8



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttiti Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

786 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako aquariuma - Bi sarrera
Balentin Santesteban Eskudero | DONEZTEBE
Buatxabal - Kamiseta bat
Ainhoa Fernandez Arretxea | OIZ
La Rhune - Sarrera bat
Antton Eskudero Perurena | GOIZUETA
Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Miguel Saldias Erasun | BEINTZA-LABAIEN
BKZ abentura - Sarrera bat
Mikel Arraigo Braña | ARESO
Arkupe gozotegia - Lote bat
Daniel Fernandez Arroabarren | ALMANDOZ
Erein - Liburu bat
Josune Artieda Iantzi | BERA
Erein - Liburu bat
Arantxa Gortari Arraztoa | GARTZAIN

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



Sarrera bat

KIMETZ
www.kimetzbelardenda.com



Otar bat

IRRISARRI LAND
www.irisarriland.com



Sarrera bat

MARTIKO
www.martiko.com



Lote bat

**LI
BU
RU
AK**



• Zopak erre egiten du
• Izurria!



• Titirimari
• Hondarrak

txalaparta
www.txalaparta.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.erein.eus



www.onddotapunto.com